

## Ekhi Zuluagak bigarren egin eban, lau arratiar egozan Bizkaiko Eskolarteko Bertso Txapelketan

Arantzazuko Aiala Iurtia Monterok, Igorreko Ekhi Zuluaga Intxaurbek, Dimako Enara Gallastegi Barrenetxeak eta Arteako Iradi Barrenetxeak Bizkaiko Eskolarteko Txapelketako finala jokatu eban. Zuluagak buruz burukoa jokatu eban Kelmene Abaitua txapeldunagaz eta Euskal Herrikorako pasea lortu dau. Idatzizkoan, Arantzazuko Ekain Menikak eta Igorreko Libe Arauzok be sariak jaso ebezan. **6. orrialdea**



## Igorreko jaiak gozatuteko hamar egun eta bederatzi gau

**U**meentzako jolasak, lehiaketa gastronomikoak, kirol txapelketak, antzerkia eta, zelan ez, kontzertuak dagoz. Besteak beste, Junapu, Bulego eta Raimundo el Canastero izango dira Igorren. Egitarau osoa gehigarrian konsultatu daiteke.

Jaietako hasikerako txupina ia 40 urtez Jokaldin eta oin Ut taldeko Juantxu Urkiagak botako dau. Txupina botatearen emozinoez, Igorreko jaien berezitasunez, jaietan erroren garrantziaz eta atzen 40 urteotan izandako aldaketaz egin dau berba Urkiagak. **Gehigarri berezia**



## Bilboko Liburu Azokan aurkeztuko dau Jon Urutxurtuk liburua

Jon Urutxurturen Arratiako tranbiaren historia grafikoa (1902-1964) aurkeztuko da bagilaren 5ean Bilboko Liburu Azokan. Tranbiak Arratiako bizi-moduan izan eban eragina kontetan dau liburua. **8. 9. eta 10. orrialdeak**



### ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

## Umeentzako udalekuak egongo dira eskualdeko herri guztietan

Ikasturtea amaituta eta hurrengo astean edo asteetan, 4 eta 12 urte bitartekoentzat udaleku irekiak eskaintzen dabaz udalek. Herri batzuetan, batez be nagusiagoentzako eskaintza be badago, horrentzat herrikan kanpoko jarduerak eskaintzen dira. **7. orrialdea**

### IGORRE

## Euskera Planeko galdetegiak beteteko beste aukera bat dago

Aurrera doa Igorreko Euskara Plana diseinetako prozesua. Informazioa jasoteko galdetegi bat zabaldu zan herritarren artean eta lan-mahaia egin dira hiru arlo estrategiko landuteko. Herritarren parte-hartzea sendotuteko bariro be zabaldu dira galdetegiak. **6. orrialdea**

### ARRATIA

## Jaietatik etxera bueltetako autobus zerbitzua egongo da

Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM), Galdakao eta Zornotzako Udalak batera, herriko jaietako egun nagusietan, gaueko autobus zerbitzua ipiniko dau martxan, hilaren 8an, Igorreko jaietan, Arratia, Amorebieta-Etxano eta Galdakako gazteek, kotxea hartu beharrean, autobusa erabili dagien.

Igorreko jaietan, hilaren 8an eta 15ean eskainiko da gaueko autobus zerbitzua; 02:30ean eta 05:00etan autobus geralekuan. Herri bakoitzean, noz eta non hartu ahal dan autobusa 5. orrialdean dago zehaztuta. **5. orrialdea**



**EKIN**

LAN PUBLIKOAK  
UR ETA SANEAMENTSU SAREAK  
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK  
PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK

94 631 72 57 Igorre (Bizkaia)  
eraiketak@construccioneseakin.com



Igorreko jai zoriotsuak opa deusueguz!

**RENAULT**

**TALLERES ELEZARRE**  
Lehendakari Agirre, 22 · 94 631 56 34 · IGORRE  
elezarre@telefonica.net



## ZEURE BERBEA

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea  
BEGITU aldizkaria  
Herriko Plaza 24  
48142 Artea  
Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutuna:  
[begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus)

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera.

## Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

### Hitanoagaz hasteko aholkuak (XLVII). Kale berbakunea sustatu guran

#### ESAKUNEAK

- Gauza bategaz konturatu **nok**.
- Zegaz konturatu **haz** ba?
- Ba... **etxakiat** eguneroko gauzak euskeraz esaten... Esaterako *echar la bronca* esateko bronkea bota esaten **joat**.
- A ba gura **bok** neuk **lagundukoat**. Gure etxean lehenagoko eran esaten **juzek** gauzak, kar, kar, kar. Esate baterako, amak gedar egin **jostek**, bronkea bota esateko. Edo *eres un bruto*, hi **haz** astarra!
- Eskerrik asko, hi! Hemendik aurrera **esaitezak** holangoak gehiagotan, mese!
- Ok! **Esangoazat!**

## ERETXIA

### Bizirik erre zituen. Gorrotoaren makineria

**A**ngela Davisek inoanez, "mundua goitik behera aldatzea posible balitz legez jokatu behar da. Eta denpora guztian egin behar da hori". Feminismoaren eraldatzeko indarra ukatu ezinekoa da; gaur egun androk daukaguzan eskubideak burruka kolektiboei, eta gure bizitza eta askatasunaren kontrako sistema desorekatu eta bortitz honeri etenbarik aurka egiteari esker existiduten dira. Eraso patriarkalaren testuinguru globalean, eskubide bat bera be ezin da ziurtzat jo, jakin badakigulako, edozein aurrerapen feministaren aurrean beti dagoala kontraeraso misoginoa.

Maiatzako 18-19ko astegoie-nean, "Europaviva 24" izeneko goi-bilera faxista egin zan Espainiako uriburuan, garragarriaren 9ko Europako hauteskundee-tarako kanpaina ultraeskuindarra bultzatzeko. XX. mendeko faxisten oinordekoak egon dira han; Milei, Chikli (Netanyahu genozidaren ministroa), Le Pen, Morawiecki, Ventura, Kast eta beste personaia bitxi batzuk. Baina topaketa negargarri bat baino ez, izan eitekean hau, gorroto diskursoak onesten, elikatzen eta legitimetan dituan Europa baten *icebergaren* puntea da, giza eskubideen kontrako goi-bilera bat, hain zuzen be. Ultraeskuoiaren konplize da Europa; izan be, Europak berak indarrez lapurtutako lurraldeetatik igesi doazen pertsonen kontrako migrazino politikak gogortu egiten ditu eta estadu genozida bateri armak salduten deutzaz, festan parte hartzean daben enpresaburu poderetsu espainiarrakaz batera.

Maiatzaren 17a gorroto LGBTQI+ren kontrako nazinoarteko eguna izan zan. Kolektiboaren kontrako indarkeriak eta diskriminazioak ikusi arazotea dauka egunak helburu. 11 egun



### IANIRE DE LA CALVA IBARRONDO

Ingeniaria, lesbiana, aktibista eta FeministAldeko kidea

ren Argentinan izan da, bere bozeroaleak, berbearen existentzia bera ukatzen dauan bitartean. (Nahiz eta RAEk berak, feminista izateaz bape be susmagarri ez dan erakundeak, guzurtatu dau berbearen existentziarik eza). Egunak, askoz gehiagorako emon eban, eta Getxon eta Ortuellan, hementxe bertan, geure ondoan, eraso lesbofoboak salatu zituen. Eta Roberta Marrero erreferente eta artista trans-ak, bere buruaz beste egin eban, mina jada jasan ezina zalako.

Sexu eta genero disidenteok hilteko arriskuan gagoz, batez be testuinguru soziopolitiko erreakzionario eta pobretutakotan (Milei batez besteko soldatea %19 txikitu dau) eta agintariek justizia soziala aberrazino bat dala dinoe. Justizia soziala, politika publikoak, sexu eta ugalketa eskubideak be hilteko arriskuan dagoz. Eta datozen Europako hauteskundeetan inoz izan dan faxismoaren gorakadarik handiena aurrekusten da. Zer egingo dogu? Zer egiteko prest gagoz?

Gorroto diskursoa, sufriduten doguzan indarkeriak egosten dituan saldea da. Indarkeria horreek isiltasun konplizean, burlan eta ikusezintasunean oinarritzen dira, eta gaur egun ez da aukera bat beste aldera begiratzea. Diskurso horreek, seinlamentuagaz, burruka kolektiboagaz, burruken arteko aliantzeagaz, sororidaeagaz eta nazinoarteko alkartasunagaz burrukatu behar dira. Datozen egunotan, faxismoaren kontrako mobilizazio feministak masiboa espero da Colon plazan, eta lau ez garan arren, eta milaka izanda be, askoz gehiago izan behar gara.

Eskubideak ez datoz Merlinden makilatxo magikotik, ezta denpo-rearen berezko bilakaeratik be, eskubideak, aurretik izan ziranen odolaren eta heriotzearen kontura eregi dira. Eztabaidan dago zer mundu eregi gura dogun, zein eskubide blindatu gura doguzan eta zein bizitza babestu gura doguzan. Aukera bideragarri bakarra, antifaxismoa da.

**Erredakzioan itzulia**

lehenago, hilebeteetako jazarpenaren ostean, molotov koktel bat bota eta bizirik erre zituen Roxana, Pamela eta Andrea, lesbiana eta pobre izateagaitik. Laugarren biktima, Sofia, egoera kritikoan dago. Lesbozidioa, Milei presidentea-



## LUMATUTEN



## AMAIA ESPINOSA

## Lorailekoak

**O**rtuko lanak egiteko, aituen esanetan behintzat, aurten gozoko lorailaren 13ko astea, -aste osoa ilbehera, aste osoa ilberri-aste aparta izan da frutua emoten daben hainbat ortuari landatzeko: tomatea, piperra, alberjilea, kalabazin zein bainea besteen artean. Baina egutegiak aldera egin arren, eguraldiak kontrara be egin da. Eta hori gertatu da, ortuko langile gehienak euren norik gehiagokoaren urteroko karreraxoa alde batera itxi eta landarak eskuetan gelditu dira; bisitan daukaguzan euri eta hotzak joan eta udabarri eguzkitsu eta epe-lak lurak laztandu dagiezan zain.

Zain, ze arazoa sailhestearren mendeetan izandako ohitua, hau da, eguraldi txarretik babes-tearren klarisei erosten izan diran arrautzak be, krisialdian ei dago. Edera monjen arteko istilua zabaldu dana. Amabirjinaren hilebetean, eleizaren kontrako estatu golpea. Eta fede zaharkitu eta kasposoen ordezkariak diran komedietako *monsiñorea* eta *susedidoaren* bozeroalea dan abade-kokteleroak,

telebista, irrati zein egunkari serioetakoen laguntzeagaz, zirkua, berbabide unibersala bihurtutea lortu dabe. Eta zer aterateko? Eurentzat gauza gitxi, baina dinoe pasautakoagaz eta sare sozialei esker, Erromaren aldeko monjak modan jarri dirala. Bueno, niri behintzat errezatzeak, lorak edo ortuariak landuteak, trufa gozoak egiteak edota tabernak eta hospederiak gobernatzek ez nabe larrituten. Larritu, loraila honetan Vista Alegreko zezen plaza bete ebanek, eta ez sortu daben Estaduko diplomazia krisiagaitik, agertu daben Europa berbideratzearen helburuagaitik baino. Larritu, batutako agintari eta munduko monsiñoreek zabalzen daben beste mendeko hats faxista eta hats horregaz harrotu gura daban hautsak larritzen nabe.

Beste mendeko loraila hatsitu hareek ordea, baeukien gure txikitako bizian beste usain klase batzuk be. Eskolako tinta eta mahaiko argizariagaz batera, lorailean, lorez apaindutako eskinako Errosarioko birjinaren irudia eta maestrearen mahaia. Gogoan dodaz landutako lurren berotasuna eta ingurumari guztiak lorez beteta. Barruan daroadaz etxeko zein inguruko etxe guztietako larrosen lurrina, etxe ondoko bidetxoaren anisetako loreen gozoa eta gogoan Josefaneke pasinoetako lore bitxiak, munetako margarita moltoak, seminarioko hortensia dotoreak eta kalak, hain umilak eta hain ederrak, edozein etxetako hormen kontra. Danak lorailak, ordukoak eta gaurkoak, ilunak eta argiak, euritsuak eta garbiak, hasdunak eta gozoak. Udaren zain.

## ZERTZEAN



## RAFA UGALDE

**U**me leuna izan nintzen ni, lotsor neure ahuleziaz, ahul oraindik aldean daroan umearen negarra gordetzeko, gainerakoek negarrari bidea galarazten ziotenean; mutilik gorde egin behar izaten baikenituen negar-antuluak, eta niri gainez egiten zidaten, geldiarazitako uren amorruek uriola bihurtu eta presari gainez egiten dion moduan, zigor fisikoaren oldeari men egiten nionetan.

Baina gainerakoan aurrean jaso nituen umiliazio haiek malkoek baretu zituzten.

Bentzutu nindutenean, hortzak lurrean inkatuak, malkoetan aurkitu nuen kemen.

Baztertu egin ninduten eta ez nuen lagunik aurkitu neure negarra baino.

## Ume leun hura

Bidegabekeriaren aurrean ezgai, hura izan nuen sosegai.

Minez aurkitu zintudanean nire negar-antuluak izan zenituen sendagai.

Desmaitasunaren eremuko basamortuan negarra izan nuen babes eta laztan.

Egun, egindako bideak atzerantz begiratzeko perspektiba ematen duelarik, hainbestetan negar egin ostean! Orain, heldutasunak neure buruari gizon esatea ahalbidetzen duelarik, negar-antuluak ditut bizialdiaren inguruan eratu dudan gizonari itxura emateko behar izan dudan mailukada jasa.

\* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduari ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

**E**gia da ez dagoala urte sasoirik musikarako: udabarrian, neguan eta udagoiengan etxean, tabernetan eta kontzertu aretoetan, besteak beste, egoten da presente. Baina udan beste dimensio bat hartzean dau: kaleak eta plazak, egunez eta gauez musikaz beteten dira personeren sentimentu, pentsamentu eta bizipenak aditu arazoteaz gainera, laguntasunak estutzen, amodioak ahaztuezin egiten eta kolektiboak sendotzen.

Gure oroimenean, uda bakotzak soinu banda bat dauka, kresala edo bedarraren usainagaz nahastu egiten dana sinestesia zoro baten. Musika estilo guztiak, formatu guztietan entzuteko aukera zabala izango dogu hastear dagoan udan be seguruenik, eta akaso, horreetako melodia batzuk betiko sartuko dira gure bizitzetan, gure zeluletan eta gure oroitzenetan.

Amodiorako zein burrukarako behar dogu musikea. Udan gainezka izan daigula!



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
[gorosti@gorostisl.com](mailto:gorosti@gorostisl.com)

**BEER & EDARIAK**  
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91  
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • [beerandofak@gmail.com](mailto:beerandofak@gmail.com)

**agoa** Ortodontzia  
hagin klinikak  
Implanteak  
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa  
Odontologia

Bidebarri 1. behea  
48140 Igoine-Bikaina  
T. 94 631 50 39  
Iñigo Irujo Zubizarreta 901  
R.P.S. 31/06

AREATZA

## Areatza 1338 SL soziedade publikoak etxebizitza bi ipini ditu salgai

### Erredakzioa

Goikokale 14-16, 1D eta 2H dira salgai dagozan etxebizitzak, 160.283,91 euroko prezioan eta 170.415,67 euroko prezioan hurrengo hurrengo.

Etxebizitza horreetako bat erosi ahal izateko adinez nagusia izan behar da, etxebizitza premia izan, urteko 15.000 eta 54.250 bitarteko diru sarrera haztatuak izan eta esleitutako etxebizitza

izan behar da eroslearen edo bizikidetzaren unidatearen bizilekua.

Areatzan erroldatutako pertsonak izango dabe esleipenerako lehentasuna eta bizikidetzaren unidateko kideek ezin izango dabe etxebizitzarik euki jaubetzan, jaubetza soilean, azalera-eskubidean edo gozamen-eskubidean, eskaera egindako datan.

Baldintza guztiak <http://labur.eus/etxebizitzak-salgai> estekan topau ahal dira.



ARRATIA

## Ilgoran Arratiako Andren Jabekuntza Eskolearen ikasturte amaierako bilera eta ospakizuna

### Erredakzioa

Arratiako andrek Ilgoran Jabekuntza Eskolako 2023-2024 ikasturteari amaierara emongo deutsee bagilaren 15ean Diman, 11:00etatik 14:00etara arteko bilera eta osteko bazkariagaz. Oindino lotuta ez dagoan arren, umorezko bakarriketaren bat edo beste jarduerak ludikoren bat be ez da faltauko.

Bileran, ikasturtean egindako jardueren ebaluaketea egingo dabe bertaratutakoek, baita datorren ikasturterako euren proposamenak be. "Egindako jarduerak guztien hausnarketa kuantitatiboa eta kualitatiboa litzateke, izan daben asebetetze maila. Datorren urteari begirako proposamenak barriz, mota bitakoak izan daitezke: datorren ikasturterako ikastaroak proponiduteko zein asebetetze maila hobetuteko proposamenak" azaldu deutso BEGITURI Amagoia Villanueva AUMko



Bardintasun teknikariak.

### Ospakizuna

Behin bilera amaituta, kurso amaierara alkarregaz ospatuteko momentua izango da. Horretarako, bakotzak eroandako jatekoak konpartiduko dira frontoi txikian.

ZEBERIO

## Lau eguneko egitaraua prestatu dabe Zeberrioko Ermitabarriko jaietarako

### Erredakzioa

Egusetik domekara, hilaren 13tik 16ra ospatuko ditue San Antonio jaiak Ermitabarrin. Musikea ez da faltauko disko festakaz, trikitilariakaz eta euskal jantzakaz, eta gastronomiak be bere lekua izango dau jai honeetan: barauskarria, sardina jana, herri bazkaria eta herri merienda be egongo dira-ta. Gainera, jokoak, herri-kirolak eta pato lasterketak be egongo dira, besteak beste.

### Bagilak 13, eguena

12:30ean, txupinazoa.  
13:00etan, mezea ermitan.  
13:30ean, barauskarria.

### Bagilak 14, barikua

18:30ean, pelota partiduak.  
21:00etan, sardina jana.  
21:30ean, DiskoFesta Sound.

### Bagilak 15, zapatua

12:00etan, puzgarriak eta umeentzako tailerrak.  
15:00etan, herri bazkaria.  
18:00etan, txapel jaurtiketea.  
18:00etan, Igel Txapelketea.  
18:30ean, bola jokoak.  
19:30ean, herri merienda.  
20:30ean, DiskoFesta Nemux  
22:30ean, Etxebarria aita-eme trikitilariak.  
01:00etan, txokolatea.

### Bagilak 16, domekea

12:00etan, helduen pato lasterketea.



12:15ean, umeen pato lasterketea.  
13:00etan, euskal jantzak Gazte Barri Dantza Taldearen eskutik.  
14:00etan, herri-kirolak.

ARRATIA

## Gauetan autobusa egongo da eskualde eta inguruko jaietako egun nagusietan

### Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM), Galdakao eta Zornotzako Udalakaz batera, herriko jaietako egun nagusietan, gaueko autobus zerbitzua ipiniko dau. Arratia, Amorebieta-Etxano eta Galdakao gazteek, kotxea hartu beharrean, autobusa erabili dagien.

Zerbitzua bagilaren 8an ipiniko da martxan, Igorreko jaietan, eta urri lehenengora arte, Galdakao jaiak izan arte, egongo da.

Arratiako herrietan, Lemoan izan ezik, autobus geralekueetatik urtengo da autobusa; Lemoan,

Correosen ondok. Amorebieta-Etxanon, anbulatorio ondoko geralekuan hartu behar da eta Galdakaoan, Plazakoetxen.

### Egunak eta orduak

Jaietatik bueltetako autobus zerbitzua, Igorren, jaietako zapatuetan, bagilaren 8an eta 15ean egongo da. Bedian, be zapatuan, bagilaren 22an; Arantzazun, bagilaren 28an, barikuan, eta hurrengo egunean, Diman izango da. Amorebieta-Etxanoko Karmenetan, lau gautan eskainiko da zerbitzua: garagarilaren 15ean, astelehena; 20an, zapatua; 24an, eguaztena

eta 27an, zapatua. Lemoan, garagarilaren 27an, egongo da etxera bueltetako autobusa eta Zeanurin, abuztuaren 10ean. Areatzan, abuztuaren 30ean, barikuan, eskainiko da zerbitzua. Artean, urri lehenengoaren 8ko gauerako ipini dau autobusa AUMk. Amaitzeko, urri lehenengoaren 14an eta 22an Galdakaoetik bueltetako autobusak egongo dira.

Ordutegiari jagokonean, 02:30ean eta 05:00etan hartu ahal izango dira autobusok, Arantzazun izan ezik. Arantzazutik, 03:30ean hartu ahal izango da autobusa herrira bueltetako.

AREATZA/LEMOA

## Hilaren 8an eta 10ean zabalduko ditue Areatza eta Lemoako udako ugerlekuak

### Erredakzioa

Bagilaren 8tik urri lehenengoaren 8ra zabalduko ditue aurtien Areatzako udako ugerlekuak; Lemoakoak barriz, hilaren 10ean zabalduko dira eta urri lehenengoaren 8a arte egongo dira zabalik. Goizeko 11:00etan zabalduko dira ateak eta 20:00etan, zarratuko dira bietan.

Sarrerren prezioak desbardinak izango dira lan eta jai egunetan eta bonuak egongo dira, sarri

joan gura dabenei merkeago urten jakien.

Areatzan, ugerlekuak zabaldu baino lehen, bagilaren 6 eta 7an 16:00etatik 20:00etara, ugerlekuko karneta egiteko aukerea egongo da ugerlekuan bertan.

Igaz lez, Areatzako ugerleku txikerraren inguruan eguzkitakoak egongo dira, eguzkitatik babesteko. Ugerlekuetako Aldamin jatetxea maiatzean esleitu zan eta martxan ipiniko da bagilaren hasikeran. Lau urterako

kontratua daukie, urte biz luzatu daitekena.

### Areatzako ugerlekuetan, konponketak

Ugerlekuetan hainbat obra egin ditu Udalak, ugerleku inguruko egurrezko barandak konpondu ditu, kanpoko hesiak be barriztu dira, zugatz barri bi be landatu ditue eta pintura lan batzuk be eroan dira aurrera. Irisgarritasunari jagokonez aldageletan hobekuntza batzuk egin ditue.

ARRATIA

## Euskal Herriko Eskolarteko Bertso Txapelketarako sailkatu da Ekhi Zuluaga

Erredakzioa

Maiatzaren 25ean jokatu ziran Arrigorriagan Bizkaiko Eskolarteko Txapelketako finalak. Bat-batekoan, buruz burukoa jokatu eben Berrizko Kelmene Abaitua txapeldunak eta Igorreko Ekhi Zuluagak, bigarren egin ebanak, eta biek lortu dabe pasea Euskal Herriko Txapelketarako. Bertsozale Elkarteak eta Ikastolen Elkarteak alkarlanean antolatuten dabez eskolarteko txapelketak.

Arratiak bertsojaritzan etorkizun handia daukala ikusi zan Bizkaiko Eskolarteko Bertso Txapelketan. Izan be, zortzi finalisten artean, lau arratiarrak ziran; Arantzazuko Aiala Irurtia Montero, Igorreko Ekhi Zuluaga Intxaurbe, Dimako Enara Gallastegi Barrenetxea eta Arteako Iradi Barrenetxea, hain zuzen be. Idatzizkoan, Arantzazuko Ekain Menika Iruarizagak eta Igorreko Libe Arauzo Bilbaok bigarren sari bana irabazi eben bakotxak bere kategorian.

Idatzizko finalean, 200 gaztetxok hartu eben parte, eta aurretik, egin-

da ebezan kanporaketak ikastetxe eta herrietan. LH5etik Batxilergora arte, mailaka jokatzen da idatzizkoa. DBH2ko bigarren saria, Arantzuko Ekain Menikarentzat izan zan eta DBH3-DBH4-Batxilergo kategoriakoa Igorreko Libe Arauzorentzat.

### Bat-bateko finala

Idatzizkoaren ostean, zortzi finalistek jokatu eben bat-bateko finala. Aurten 18 parte hartzaile egon dira bat-bateko txapelketan eta hiru kanporaketa jokatu dira. Zortzi finalistetatik lau arratiarrak ziran. Igorreko Ekhi Zuluaga buruz burukora sailkatu zan eta Kelmene Abaituagaz lehiatu zan, txapeldunorde geratuz. Holan, bagilaren 15ean, Arantzan jokatuko dan Euskal Herriko Eskolarteko finalerako sailkatu da Igorrekoa.

Bat-bateko finalean aurkezle beharretan, Arantzazuko Igor Menika Bengoetxea ibili zan. Epaimahaia Mirari Azula Aurrekoetxea, Ainhua Arregi Elosua eta Juanjo Respaldiza Ozaetak osotu eben, eta idazkari beharretan, Lemoako Ariane Elejabarrietak jardun eban.



ARRATIA, UBIDE

## Bideon zerbitzua desgaitasuna edota menpekotasuna daukien personek be erabili ahal izango dabe

Erredakzioa

Oin arte 65 urtetik gorakoek eta unibersidadeko ikasleek bakarrik erabili ahal eben Bideon Arratian, eskariaren araberrako garraio-zerbitzua, oin desgaitasuna eta menpekotasuna daukien pertsonen kolektibora zabaldtu da.

Kolektibo horrek goizeko 08:00retatik 14:00etara bitartean erabili daike zerbitzua etxeko atetik eskualdeko herriguneetara gestinoak egitera joateko, farmaziara, udaletxera, baita

Galdakaoko eta Arratiako anbulatorioetara joateko be, beste leku batzuen artean. Zerbitzuaren prezioa euro batekoa da ibilbide bakoitxeko, eta 1,50 eurokoa Galdakao-Usansoloko Ospitalera eta Galdakaoko anbulatorioa joateko.

Erabili gura dabenek errolda ziurtagiria, desgaitasun fisikoaren ziurtagiria edo menpekotasun balorazioa aurkeztu behar dabe Igorreko Bideon Arratianeko bulegoan, 08:00retatik 14:00etara edo 16:00etatik 18:00etara.

IGORRE

## Diseinatze amaierako fasean dago 2025-2030 indarraldia izango dauan Igorreko Euskera Planak

AEK-ko Ahize Aholkularitzaren eskutik aurrera doa Igorreko Euskara Plana egiteko prozesua. Informazioa batuta, erredakzio fasean dago, gero Udalagaz adostu eta, urtea amaitu baino lehen, plenoan onartuteko.

Ahizeko Andoni Solorzanogaz egon da BEGITU.

Erredakzioa

### Plana egiteko prozesua zein fasetan dago?

Amaierako fasean. Zabaldtu zan galdetegi bat herritarren artean eta galdetegi horretatik atera dogu informazioa diagnosi baterako. Gero herritar batzuei egin jakie alkarriketa zuzena, hortik be informazioa jaso dogu eta gero egin doguz lan-mahai batzuk. Bata izan da Hezkuntza eta familia transmisioa; beste bat, Kultura, Aisialdia eta Kirola eta hirugarren bat be egin dogu ikastetxean nerabeakaz.

Alkarriketa horreetatik gehi galdetegiak ateratakoagaz, egin dogu diagnostikoa. Azken lan-mahai baten aurkeztu da diagnostiko horren laburpena eta hor jaso doguzan proposamenak azken fasean sartu gara plana diseinetako.

### Zer moduzko parte-hartzea egon da?

Galdetegi larogeta piku inguruk erantzun dabe eta egiten gabiz beste saiakera bat, ea erantzun gehiago lortzean doguzan. Kopurutan, kopuru txikerra da, ehunekoetan ez da asko, baina holango prozesuetan normala da kopuru hori. Beste herri batzuetan be jentea ez da askorik inpliketan. Bigarren buelta bat be egin dogu eta ikusiko

dogu.

Galdetegi, aurreko planetatik ekintza batzuk baloretako eskatzen da; ikusteko ea asmatu dan eta ea ezetuten diran ekintza horreek. Euskerea sustatzeko ze esparruri emon behar jakon lehentasuna be galdetzen da. Hor gehienek aisialdiari eta gazteei emon deutsee lehentasuna. Udalak zer egin ahal dauan be itauntzen da galdetegiaren.

### Ze onorio atera dozue? Zein da Igorreraren egoera euskerari jagokonean?

Bizkaiko ikuspegia edo Euskal Herriko ikuspegia erabilten badogu ez dala txarra esango neuke, beste leku batzuk askoz txarrago dagoz. Baina egia da azkenengo lau urteotan, 2017an egin zan kale erabilerearen neurketa bat eta 2021ean beste bat, asko bajatu dala euskerearen kale erabilerea



Igorren. Beraz, ez da txarra, baina badagoz zantzu batzuk larrituteko modukoak.

### Jenteak egin ditu proposamenak horri buelta emoteko?

Bai, lan-mahaietan urten dira proposamenak. Plan bat egin daiteke bulego batetik, baina jentearen parte-hartzea garrantzitsua da eta herriko zenbat eta jente gehiagok parte hartu, eta bere eretxia emon plana herri horretarako egokiago izango da; eurak dira-ta herria ezetuten dabena eta herriko beharrianak ikusten dabezanak eguneroko.

### Zeintzuk dira hurrengo pausuak?

Hurrengo pausua bulego lana da: jasotako informazio guztia batzea, antolatzea eta ordenatzea eta plana bera erredaktatzea. Ni naiz Ahizekoa, AEK-ko hizkuntza aholkularitzakoa. Aurkeztu beharko geunke uda aurretik Udalean, eurek azostuteko. Gero Udalaren lana izango litzateke plenoren batean onartzea. Urte amaiera baino lehenago egin behar da.

### Aurreko planetatik badago ezer berreskuratuko dana?

Funzionau dauan guztia eta ikusi dana eragin ona edo positiboa euki dauana, seguruenik jarraituko da horregaz.

ARRATIA

## Dima, Igorre eta Zeanuritik oinez joango dira erromesak Urkiolako santutegira

Erredakzioa

Bagilaren 15ean izango da Arratiako eleizak, aurten Areatzako parrokiak, antolatutako Urkiolara errotatibea. Bertara, oinez zein autobusez joango dira erromesak. Oinez doazenak, 07:00retan urtego dira Igorreko errotandatik eta Dimako plazatik; Zeanuritik, barriz, 07:30ean, Urkiolara 11:00etako mezarako heldu ahal izateko. Urkiolako santutegian

mezea entzun ostean, barauskaria egongo da, Eingo taldearen musikeagaz girotuta.

Guztira 200 lagun inguru espero dabezala azaldu deutso BEGITURI Karlos Olabari Igorreko abadeak; 40 inguru oinez eta gainontzekoak autobusez joango diranak. Oinez zein autobusez joateko izena emon behar da parrokiari; izan be, autobusez bueltauako dira danak.

Aurtengo errotatibeak "Jarri



egizuez zuen dohaiak besteen zerbitzura" hartu dau goiburua eta gai hau, eleiztarrek urtean zehar landu dabela dino abadeak.

LEMOA

## Merkataritzan euskerea bultzatzeko kanpaina ipini dau martxan Lemoak

### Erredakzioa

Bagilaren 9ra arte, Lemoako komertzioetan euskeraz eskatzen dabenek herriko 25 dendetako 700 sarietako bat eskuratu ahal izango dabe eta zozketa baten parte hartu. Urduñako bainuetxean persona birentzako egonaldia bi zozketatuko dira. Kanpainen helburua herrian euskerearen erabilera sustatzea da.

Hirugarren aldia da Lemoako Udalak "Lemoan euskeraz eskatu eta saria irabazi" kanpaina ipinten dauala martxan. Kanpainaek, Lemoan dagozan hizkuntza ohi-turetan eragiten dau, eta herriko merkataria zein ostalariek babes zabal eskaintzen deusie. Lehenen-

go kanpainan 22 establezimientuk emon eben izena; bigarrenen 30 eta hirugarrenen 25. Lehenengo kanpainan 500 sari banandu ziran eta bigarrenen eta aurten 700.

Honeek dira kanpainan parte hartzean dabene establezimientuak: Amalur, Amorrortu jatetxea, Arraibigane, Argazkilune, Atxeta taberna, Bizkarra okindegia, Ezkur, Farmazia, Geltokia taberna, Herradura taberna, Intzuntza harategia, Iratxe Ruiz ile-apaindegia, Josier mertzeria, Kresala taberna, Lemoa Doner Kebab, Lemoako Batzokia, Frutategi Lemoa, Lemones jatetxea, Lur 2000, Luzea ile-apaindegia, Mailuki taberna, Ortuzar arrandegia, Sorgiña gozodenda, Tresnak eta Tximeleta.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

## Foru Aldundiak herritarren laguntzea eskatu dau dortoka autoktonoak topetako

### Erredakzioa

Bizkaiko Foru Aldundiak herritarren laguntzea eskatu dau Bizkaiko erreka, hezegune eta zelaietan dortoka autoktonoak topetako.

Bizkaiko lurreko dortoken edo apoarmatu autoktonoen populazioen egoera gaur egungo zalantza handienetako bat da eta Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak SOS Galapagos proiektua bultzatu dau, dortoken gainean informazioa batzeako. Izan be, dortokak non dagozan garrantzia berezia dauka. Horregaitik deia egiten deutse herritarrei dortokaren bat ikusi ezkeru, bertakoa zein exotikoa, horren barri emoteko 688 847 376 edo 619 490 556 te-



lefonoen bidez, edo helbide elektroniko honeetara [sosgalapagos@gmail.com](mailto:sosgalapagos@gmail.com) edo [espacios.naturales.protegidos@bizkaia.eus](mailto:espacios.naturales.protegidos@bizkaia.eus) idatziz.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

## Ubide, Zeberio eta Arratiako herri guztiek eskaini dabez umeentzako udalekuak

Udal guztiek eskaintzen dabez udaleku irekiak, 4 eta 12 urte bitarteko umeentzat, asteka apuntetako.

### Erredakzioa

Udalari batzuek, kokortuxeagoentzat be, udaleku itxiak eskaintzen dabez, herrikan kanpo, askotan natura, kirola eta kultura ardatz hartuta.

Eskolea amaituta eta hurrengo asteetan, udalekuok, beste ume batzukaz olgetako eta aire librean jarduerak egiteko aukerea emoten deutsee umei. Goizeko ordutegia daukie, txango egunetan arrastira arte luzatuten dana. Udaleku irekien lehenengo txandea, bagileko atzenengo astean da Arantzazun, Areatzan, Artean, Igorren, Lemoan, Ubiden, Zeanurin eta Zeberion. Bedian eta Diman, barriz, garagarri-laren lehenengo astean hasiko dira udaleku irekiak.

Umeak aste bakar batera edo gehiagotara apuntau daitezke eta neba-arrebek deskontua izaten dabe. Holan, herriaren arabera, bost astera arte egon daitezke udaleku irekietan. Arantzazuk, Bediak, Dimak, Ubidek eta Zeanurik aste bi eskaintzen ditue; Areatzak eta Zeberio 3; Arteak eta Lemoak, 4;



eta Igorrek, 5 aste.

### Udaleku itxiak, ludotekak eta bidaia

Nagusi eta txikiagoentzat be eskaintzen dabez udako jarduerak eginez ondo pasetako aukerak hainbat herrik. Holan, Adunan astebete pasetako aukerea daukie Arantzazuko 10 eta 17 urte bitarteko gaztetxoek; Bediako Uda Gaztean parte hartuten dabene 12 eta 17 urte bitartekoak astebete egongo dira Ebro ibaiaren inguruan eta *raftinga* egin eta kanoetan ibiliko dira, besteak beste. Diman barriz, astebeteko udaleku ibiltariak antolatuta ditue gaztetxoentzat, eta Zeberioako Nafarroako Olloko aterpetxean egongo dira bagilaren atzen astean.

Haur Hezkuntzako umeen eskaintzari jagokonean, Bediak aste bitan, 3 urte beteta eta fardel barik dabizenentzako jolasak eskaintzen deutsez Txiki-Txokon.

ARRATIA, UBIDE

## Arratiako Udalen Mankomunitateak hitzarmena sinatu dau menpekotasuna daukien personei lagunduteko

Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) lankidetzahitzarmen bat izenpetu dau Bultzatu Fundazioagaz, Arratiako udalari guztietan Laguntza Teknikoen Bankua (LTB) proiektua, hau da, menpekotasuna edo mobiduteko arazoak daukiezan personentzako gurpilaikiak, takatak, garabiak edo ohe artikulauak, besteak beste, mailegatzeko zerbitzu solidarioa martxan ipinteko.

### Erredakzioa

Hitzarmenaren arabera, AUMk 8.000 euroko dirulaguntzea emongo deutso urtero Bultzatu Fundazioari. Hitzarmena Arratiako Udalen Mankomunitateko lehendakari Aitor Sorriketa Larreak eta Bultzatu

Fundazioaren koordinatzaile José Manuel Blascok sinatu eben.

### Maileguan

Laguntza Teknikoen Bankuaren abiapuntua, erabilten ez diran laguntza teknikoak jasotea eta behar dauanaren eskura ipintea



izan da. Zerbitzua behar dabenek Bultzatu Fundazioaren laguntzinoa eskatu ahal izango dabe AUMko Oinarriko Gizarte Zerbitzuen bitartez edo udaletan bertan. Ondoren, Fundazioaren terapeuta okupazionala familiak hartu-emonean ipiniko da, produktuok hornidu eta, holan bajagoko, instalatuko. Onuradunek fidantza bat ipini beharko dabe mailegatutako produktu bakoetako, eta bueltean ordainduko jakie atzera; ohe artikulatuen, garabien eta gurpilaikiaren kasuan, hileko kuota txikiak ezarriko dira, eta, halan jagokonean, koordainketa bakarra, etxean instalatuko.

### Produktuak

Bultzatu Fundazioak 45 laguntza artikulua baino gehiago dauka etxean erabilteko (ohe artikulauak, garabiak, koltxoak eta eskaren aurkako kuxinak, higiene-aulkia...), etxean egokitzeko (jesarleku birakariak, barandak, goratze-konoak, mobimentu-sensoredun alarmak...), mobiduteko (gurpil-aulkia, taka-takak, makuluak...) eta jagoleentzat (mobilizazio bandak, oinarri labangaxak, kuxin birakariak...).

## ARRATIAKO TRANBIA. LIBURUA

# Jon Urutxurturen 'Arratiako tranbiaren historia grafikoa (1902-1964)' aurkeztuko da bagilaren 5ean Bilboko Liburu Azokan

Bagilaren 5ean, eguerdiko 12:00etan, *Arratiako tranbiaren historia grafikoa (1902-1964)* liburua aurkeztuko da Bilboko Liburu Azokan. Jon Urutxurtuk euskeraz eta gaztelaniaz idatzia eta Bizkaiko Foru Aldundiak argitaratua, lan hau denporearen tunelean zeharreko bidaia bat da, 1902 eta 1964 urteen artean zeharkatu ebazan udalerrietako biztanleen testigantza grafiko eta dokumentalen bidez, garraio bide hori gogoratu gura dauana. Liburua Bizkaiko Foru Liburutegiko dendan edo online erosi daiteke.

## Erredakzioa

Urutxurtuk egindako ikerketeak, 200 bat argazki, testu dokumentu ugari, hedabideetako albisteak, iragarkiak, testigantzak... eta Juanjo Olaizola Euskal Burnibidearen Museoko zuzendariak egindako ikerketak hartzean ditu abiapuntu, informazio eta material barriakaz, Olaizolaren lana osatu eta aberastuteko.

## Animalia-trakzinodun tranbiatik, tranbia elektrikora

Ehun eta hogeitertetik gora igaro dira Arratiako Tranbia izenagaz ezetuten dan Bilbotik Durango eta Arratiarako Tranbia Elektrikoa jaio zantetik, eta 2024ko zemen-diaren 30ean bere heriotzaren 60. urteurrena beteko da. "Garraio bide hau ezinbesteko erreferente bihurtu zan erabili behar izan eben milaka lagunentzat, bera zalako lantegietara zein Bilboko portura gora eta behera eroateko, zein mendizaleak Gorbeia hurreratzeko garraio bide bakarra.

Arratiakoa, elektrikoa, uriatekoa, eta bidaiariak eta merkantziak garraiatzen ebazan tranbia izan zn" azaldu deutso BEGITURI Urutxurtuk.

Zeanuriko historialariak azaldutakoaren arabera, Bilbotik Durango eta Arratiarako Tranbia Elektrikoaren historia arakatzeak XIX. mendearen amaierara salto egitea da. 1898an Fomento Ministeritzak lurren tranbiaren konzesinoa Angel Iturraldei emon

etsan. Dana dala, tranbia ha-reek inoz be ez ziran ibili lurren makinak mobiduta, eta 1899ko urri lehenengoaren 2an, Lemoa-Artea tartearen behin-behineko inaugurazioa egin zanean, lehen tranbiak animalia-trakzinoagaz ebilzan. Inaugurazioagaz batera, Automóvil Vitoriana konpainiak, Barazar mendatetik igaroz, Areatza eta Gasteiz lotzean ebazan autobus zerbitzua ipini eban martxan.

Probak egiteko lehenengo tranbia elektrikoa, 1902ko garagarri-laren 5ean, goizeko 09:00etan, heldu zan Durangora. Aste batzuk beranduago, Lemoa-Zeanuri tartean trakzino elektrikoa eban zerbitzua hasi zan eta animalia-trakzinodun tranbiak kendu egin ziran. 1902ko abenduaren 6an, Bilbotik Durango eta Arratiarako Tranbia Elektrikoaren behin betiko inaugurazioa egin zan.

## Lemoa Arratiako tranbiaren bihotza

Amorebieta-Etxano, Durango eta Arratiako herriak euren artean eta Bilbogaz hartu-emonetan ipinten ebazan tranbiak. Arriaga Antzokiko plazatik urtetzen zan eta Basauri, Galdakao eta Bediako udalerrietatik igaro ondoren Lemoara ailegetan zan. "Herri hau tranbiaren gunerik garrantzitsue-na zan, bertan linea bitan adarkatzen zan-eta: Durangorantza edo Zeanurirantza. Lemoan be ipini ziran kotxetegiak eta tailer nagusiak". Tranbiabideraren luzeerea guztira 49,21 kilometrokoa zan;





horreetatik 20 Bilbo (Arriaga) eta Lemoako tarteari egokozan; Lemoatik Durangorako lineak 14,6 kilometro eukazan, eta antzerako luzeera eukan Lemoatik Zeanurirako tartea.

Amorebieta eta Durango lotzean ebazan tartea 1937an desagertu zan eta 1950eko martiaren 27an, Lemoa eta Amorebieta lotzean ebazana. Beraz, 1950etik aurrera Bilbo eta Zeanuri lotzean ebazan tartea bakarrik mantenu zan. "Bere bizitzan zehar, Arratiako tranbiak era askotako gertakariak bizi izan ebazan: uriolak, errailetatik urteteak, burdiakaz eta beste auto batzukaz talkak, personak eta animaliak harrapatzea, langileen istripuak...".

### Bidaiarien eta merkantzien garraioa

Uruxurtuk azaldu dauanez, bere bizitzako lehen urteetan lehia zorrotza izan eban Bilbotik Durangorako trenbide estua ustiatzen eban Konpainia Zentralagaz, baina 1911ko bagilaren 12an, Ferrocarriles Vascongados Bilbotik Durango eta Arratiarako Tranbia Elektrikoaren akzino guztiak erosi ebazanean amaiera emon jakon enpresa biren arteko burrukeari. Hurrengo urteetan tranbien hobetzeari ekin eutsien jaube barriek eta azpiegiturak barrizta egin ziran. Bidaiarentzako bagoien kanpo dekorazioa, ordura arte egur barnizautakoa zana, aldatu eta hori kolorez margotu zan, eta bidaiarien eta merkantzien trafikoak gora egin eban. Holan, 1929an, 4.196.460 persona eta 89.287 tona merkantzia garraitu ebazan. "Kontuan izan behar da linean zenbait lantegira sartzeako bazterbideak egozala: Barbier-era, Abusun; Santa Anara, Boluetan; Basconiara, Basaurin; Firestonera, Urbin; Cementos Lemonara, eta La Flechara, Lemoan, Astepeko lantegietara, Amorebietan... Eta merkantziak kargau eta deskargetan ebazan tranbiak Arragako kaietan".

Bere 60 urtetik gorako historian tranbiabidearen errailek tarte baten baino gehiagotan ebaketak jasan ebazan. Holan, Gerra Zibila-

*Amorebieta-Etxano,  
Durango eta Arratiako  
herriak euren artean eta  
Bilbogaz hartu-emonetan  
ipinten ebazan tranbiak*



Lemoa zan Arratiako tranbiaren bihotza. Hemendik Durangorantza edo Zeanurirantza abiatzen ziran tranbiak.

gaz Amorebieta-Durango tarteko zerbitzua eten egin zan, eta gerra amaitu ondoren, konponketarik ez zan egin; alde batetik, kalteak handiak ziralako eta bes-

tetik, Ferrocarriles Vascongados Konpainiak zati hori eusteko interesik ez eukalako, trenbidearen zerbitzuagaz nahikoa zala uste eban eta. Gainera, aldi berean

Bilboko terminala Arriagako plaza- zatik, antzokiaren atzeko aldera lekualdatu zan. Sasoi honetan, trafikoa, batez be bidaiariena, etenbarik hazi zan. Hazkunde ho-



Tranbiaren ibilbidea.



## Arratiako Kubulu AEK euskaltegia

Azterketak prestatzeko (B1, B2, C1)  
ikastaro trinkoak  
uztailean eta irailean (5 ordu)

Udalek eta HABEK diruz lagunduta.

Matrikula epea, ekainaren 1etik 28ra.

673 200 100 / 946 464 000  
www.aek.eus



rren zergaitien artean, estraperloa eta Ariz-Urbi-Galdakao aldean gero eta handiagoa zan industrializazioa egozan.

1952an Arratiako tranbiak diru sarrerei zein bidaiari trafikoari egokonez, bere gorengo emaitzak lortu ebazan: urte haretan guztira 6.749.914 persona garraiatu ebazan.

Merkantziek, oster, errepidetik garraiatzeko zerbitzuak ugaritu ziran eta beherantzako joerea erakusten eben. Hasikeran, 1953ko zenbakiek aurreko urteko joerea azaltzen baeben be, urri bigarrenaren 15eko uriola izugarriek Urbin, Nerbioi ibaiaren gaineko zubi metalikoa eroan eben eta 1954ko zezeilaren 24ra arte zerbitzua ez zan barriro ezarri. Gainera, Bilboko Urazurrutiako kaietan ibaiertzeko hormaren zati handia hondatu egin zan, eta egoera hau aprobetxauz, uriburuko Udalak Arriagako plazarako sarbidea kendu eban, eta aurrerantzean tranbiak Barandiarango kaietan hasi behar izan eban zerbitzua.

**Iragarritako heriotzea**

Ordutik aurrera, Arratiako tranbia hiltzorian sartu zan. Alde batek, bidaiariak etenbarik galduz joian eta bestetik, bere egoera ekonomikoa gero eta larriagoa zan. Gainera, lineak zeharkatzen ebazan errepideetan zirkulazioa apurka-apurka gehitu egin zan, eta tranbia eta automobilen arteko bizikidetzak txarrera egin eban eta tranbia oztopotzat jotzen hasi ziran. "Testuinguru horretan, 1956ko abuztuaren 1ean ibilbideak anputazino larria jasan eban, Galdakao (Plazakoetxe)-Lemoa tartea kendu eben eta, ondorioz, linea euren artean loturarik bako tarte bitan zatituta geratu zan: Bilbao (Urazurrutia)-Galdakao, 10


kilometrokoa, eta Lemoa-Zeanuri, 15 kilometrokoa. Urte bi beranduago, 1958ko urri bigarrenaren 1ean, Urbi (Firestone)-Galdakao (Plazakoetxe) tartea eta Zeanuriko erdigunerako sarbidea kendu ebazan. Itxiera horreek merkantzien garraioa ia guztiz desagertzeta eta bidaiariena etenbarik jaistea ekarri eben".

Argi egoan, 1962ko abenduaren 5ean, Arratiako tranbiarako administrazioaren konzesinoak balioa galdu eban egunean, zerbitzua bertan behera itxiko ebela. Ha-ta guzti be, ordezeko autobus lineak ezartzeko administrazioaren baimenak ez ziran heldu, eta tranbia zaharrek 1964ko zemen-dira arte lanean jarraitu eben.

**Mendizaleen agurra**

1964ko zemen-diaren 29an, domekea, ospakizun eta jai giroan, mendizaleek agur esan eutsien tranbiari. Arratiako garraiogailua omendu guran, tranbia bi alokatu ebazan; goizeko 09:00etan Lemoatik abiatuz, Igorre eta Areatzan gelditu ondoren, 12:30ak inguruan Zeanurira heldu ziran. Zeanurin bazkaldu eta txistu eta tanborilaren soinuaz jantzatu ondoren, barriro Bilborantza bueltatu ziran, Lemoan tren hartuz.

Azken momentura arte bizi-raun eben Bilbo-Urbi eta Lemoa-Zeanuri tarte bien itxiereagaz, Arratiako tranbia behin betirako desagertu zan 1964ko zemen-diaren 30ean. "Tranbia bat Miguel Atutxa arantzazutarrak erosi eban Igorreko Garbe auzoan eukan Hostal Aranzazuren aurrean ipinteko. Hamar zenbakiduna zan, alde baten "Ceanuri" eta bestean "Bilbao" karteltxoak eroiazana. 1966ko zezeilaren 6an, domekan, gomazko gurgipen gainean eta lau mandok tirituta



Arratiako tranbia Arriaga Antzokiaren plazan. 1904ko urri lehenengoan zigilatutako posta-txartela.



Hiru zenbakidun tranbia eta Gasteizerako autobusa Zeanuriko geltokian. Argazkia: Felipe Manterola. Artxiboa: Manterola familia.



Bidaiarientzako tranbia baten barnekaldea. Artxiboa: Javier Aranguren.

egin eban Lemoatik Garberainoko bidea, txistulari, trikitilari eta albokariaren doinu eta jentearen txalo eta oihuen artean. Gertaera hori sasoi haretan hain ospetsua

zan NODO albistegirako filmau ebela. Zoritxarrez, denpora gitxi iraun eban bertan, eurite batzuen ondorioz Arratia ibaiak aurrean eroan eban eta".



Gora

Igorrika

jaiek!



**2024ko**  
**Bagilaren**  
**7tik 16re**

# Uda ate joka, herrietako jaien sasoiari hasikerea emongo deustie Igorreko jaiek

Eta hasi, modu indartsuan hasi be: Igorren ohikoa dan moduan, hamar eguneko jai egitarauagaz. Umeentzako jolasak, lehiaketa gastronomikoak, kirol txapelketak, antzerkia eta, zelan ez, kontzertuak dagoz, beste gauza askoren artean, egitarauan.

Kontzerturik garrantzitsuenak txosnagunean izango dira astegoien bietako bariku eta zapatuetan. Junapu, Dupla, Trikizio, Sua, Zirkinik Bez, Bulego, Altxa Porru eta Raimundo el Canastero egongo dira han gauak animetan.

## Erredakzioa

### Bagilak 7, barikua

17:00etatik 18:30era, ume eta gazteentzako jolasak Zaztapa-rrakaz goiko plazan.

17:00etatik 20:00etara, Saharais en Arratia alkarteak egindako jakien dastaketea.

18:30ean, euskal jantzak ume zein helduentzako. Arantzarteren eskutik.

19:00etan, txupinazoa. Juantxu Urkiagak botako dau. Bitartean jubiladuen alkarteak prestatutako merienda eta ostean Larrain jantzea egingo da Arantzartegaz Goiko Plazan.

19:25ean, kuadrillen argazkia goiko frontoiko harmailetan.

19:30ean, Kuadrillen Arteko Olinpiadak: herri-kirolak.

20:00etan, La Tuna Bando txarangea.

20:30ean, Txiki Dantz Bidebarrin.

22:30ean, A&B Show Bidebarrin.

22:30ean, kontzertuak: Junapu, Dupla eta Trikizio taldeak. Txosnagunean.

### Bagilak 8, zapatua

08:30ean, ermitetatik kantu birea Jubiladuen alkarteagaz, Jubiladuen txokoan hasita.

11:00etan, Rugby 8 inklusiboa, Txosnagune ondoko zelaian.

11:00etan, Inazio Zubizarreta ikastetxeko eta Otxandioko eskolako umeen Futbito Txapelketea.

11:30ean, umeen eskupelota partiduak kiroldegian.



**XLIII.**  
**BBK ABESBATZEN KONTZERTUAK**  
**CONCIERTOS CORALES BBK**

**UDABERRIA 2024 PRIMAVERA**

**Lasarte Aretoa**  
**Igorre**

**EKAINA | JUNIO**

**Eguna | Día: Sábado 8 Larunbata**  
**Ordua | Hora: 20,00**

**KIRIKIÑO ABESBATZA (Mañaria)**  
**CORAL POZALAGUA ABESBATZA (Karrantza)**  
**LUIS IRUARRIZAGA ABESBATZA (Igorre)**

12:00etan, Paella Txapelketea. Aurkezten dan paella bakotxeko 3 euro ordaindu beharko da. Saria: Euskal produktuen otzarak.

14:30ean, paellen aurkezpena.

16:00etan, Bizkaiko Rugby 7 Txapelketea, Txosnagune ondoko zelaian.

16:00etan, AMEren eskutik DJ Isma. Paella gunean.

20:00etan, Ostikda elektrotxarangea.

20:00etan, Luis Iruarrizaga Abesbatza Kultur Etxean.

22:00etan, Puro Relajo taldearen kontzertua Bidebarrin. 00:30ean, DJ Paco.

22:30ean, kontzertuak Txosnagunean: Sua, Zirkinik Bez eta Suma O.

### Bagilak 9, domekea

10:00etatik 14:30era, Gurutze Gorria ate irekiak. Puzgarriak, BBB erakustaldiak, taloak...

18:00etan, jantza garaikidearen ikuskizuna *Marginalia*; ondoren jantza afrikarra, *Otempodiz* udal-letxeko plazan, eguraldi txarra egin ezkerro kiroldegian.

### Bagilak 10, astelehena

Umeen eguna barraketan.

17:00etatik 21:00etara, musikarik bako gunea autismodun umeentzat barraketan.

17:00etan, umeen antzerki topaketak Kultur Etxean.

18:00etan, Astrapalea musika es-

kolea Txosnagunean.

### Bagilak 11, martitena

17:00etan, umeen antzerki topaketak Kultur Etxean.

18:30ean, Arratiako Musika Eskolako konboak Txosnagunean.

### Bagilak 12, eguaztena

Umeen eguna barraketan.

16:30ean, umeen playback-a.

18:00etan, Kino mendi taldeak antolatuta Bulder Txapelketea.

Adin tarte guztientzako.

19:00etan, zumba Txosnagunean.

### Bagilak 13, eguena

11:00etatik 13:30era, Txu-txu trenaren AME merkatari alkartearen eskutik.

12:30ean, bits-festa Kultur Etxeko plazan.

12:30ean, mezea San Antonio ermitan. Herriko trikitilariak.

15:30ean, Mus Txapelketarako izen-emotea Bidebarrin.

16:00etan, Mus Txapelketearen hasikerea.

16:30ean, Txu-txu trenaren AMEren eskutik.

18:00etan, umeentzako antzerkia, Ganso & Cia konpainiaren *Welcome & Sorry* Goiko Plazako frontoian. Euria bada kiroldegian izango da.

19:00etan, karro poteoa.

21:00etan, herri afaria Txosnagunean. Mozorroaren gaia:

lanbideak. Ondoren DJ Bass & UrbiHools.

### Bagilak 14, barikua

11:00etan, eskolako triatloia.

17:00etan, Saharais en Arratia alkarteak egindako jakien dastaketea Txosnagune ondoko landan.

17:00etan, Patata Tortilla Txapelketea. Aurkezten dan tortilla bakotxeko 4 euro. Saria: Otzarak.

19:00etan, Sakatu elektrotxarangea.

22:00etan, kontzertuak Txosnagunean. Bulego, Altxa Porru eta DJ Kuku & DJ Kene.

### Bagilak 15, zapatua

09:00etan, Emakumezko Benjaminen Torneoa Urbieta zelaian.

17:00etan, umeen pala partiduak kiroldegian.

17:30ean, Rally Umorestikoa.

18:00etan, Ardi Txakur Txapelketea. Laurkineko zelaian.

23:00etan, kontzertuak Txosnagunean: Raimundo el Canastero eta DJ Latraka.

### Bagilak 16, domekea

14:30ean, jubiladuen bazkaria eskolako aterpean.

18:00etan, Arantzarte jantzan herri-ritik zehar.

19:00etan, Gauargi erromeria. Biartean Bals Lehiaketea eta txokolate bananduko dau AME merkatari alkarteak. Kultur Etxeko plazan. Euria bada Txosnagunean.

## Hamaika kontzertu eta erromeria Txosnagunean

Bidebarrin eta Kultur Etxean kontzertuak eta DJ-ak, eta herriko kaleetan fanfarriak eta elektrotxarangak egongo diran arren, Txosnagunea izango da gaueko kontzertuetako lekua. Hamaika taldek joko dabe han, bariku eta zapatu gauetan.

### Erredakzioa

#### Junapu, Dupla eta Triki-zio

Jaietako lehenengo kontzertua Txosnagunean, jaietako lehenengo egunean bertan, hilak 7, barikuan, Junapuk eskainiko dau. Artista honek tekno pop, regueton, trap eta beste musika estilo batzuen fusinoagaz, atzen urteotan udako euskerazko kanturik arrakastatsuenetarikoak egin ditu, publikoak ondo ezetuten dauzanak. Horreek ekarriko ditu Txosnagunera, ikuskizun queer eta posmoderno bategaz taularatuta.

Junapuren ostean, Dupla rap taldearen txandea izango da. Aguraringo Gari Uriartek eta Beñat Oribek osotuten dabe Dupla. "Landa ingurutik, musika urbano aglomeraua sortzean dabe. Bere proposamenaren barruan, elektronika, rocka eta jantzea dagoz; burrukea eta maitasuna, jarkerea eta sagardao txotx-a". 2019an sortu zan taldea eta disko bi kaleratu eta 150 kontzertutik gora emon ditu.

Lehenengo gaueko atzen kontzertua, erromeria izango da Triki-zio taldearen eskutik. Triki-zio, trikitixa, folk, rock eta ska estiloe-tan dihardu eta bere musikeak jantzan ipiniko ditu bertaratu-takoak. Taldea 1997an sortu zan eta taldekideak asko aldatu dira, taldea bizirik eta pil-pilean mantenduteko. Euskal Herriko plazetan kontzerturik gehien emon dituan trikitixa taldea da Triki-zio.

#### Sua eta Zirkinik Bez

Jaietako lehenengo astegoiene-ko zapatu gauean, Sua taldeak emongo deutso hasikerea gauari. 2018an sortu zan taldea eta Gaztea Irratia Maketa Lehiaketea irabazi eta BBK Liven jo eben bizkaitarrek. Musikeari jagokonean, rock, indie eta post-punk estiloen eragina ikusi daiteke euren kantuetan. Eta hitzei jagokienean, "feminismoa defendiduten dogu eta musikeak emoten deuskun bozgorailua aprobetxetan dogu, entzun arazoteko. Kantu bako-txak historia bat kontetan dau eta batzuetan aldarrikapen argia dago

Ordu beltzak, Reddish edo Shake It Out kantuetan legez" azaldu eben tadekoek Mondo Sonorori emondako alkarrizketa baten.

Ondoren, Zirkinik Bez, Zornotzako erromeria taldeak joko dau. Taldeak, Arratiak hain gustuko dituan ska soinuak landuten ditu.

#### Astebarruan, musika eskolak

Txosnaguneko agerlekura, etorkizun baten musika jaialdietan jo eta diskoak aterako dituen musika ikasleak be igongo dira. Astelehenean, bagilak 10, 18:00etan, Astrapalea musika eskolakoek emongo dabe kontzertua eta hurrengo egunean, 18:30ean, Arratiako Musika Eskolako konboak egongo dira bertan, emonaldia egiten.

#### Bulego eta Altxa Porru

Jaietako bigarren barikuan, Bulego, 2019an sortutako Azpeitiako pop talde arrakastatsua izango da Txosnagunean gaua animetan. Taldeak bost disko ditu kalean eta kontzertu ugari emon ditue ez bakarrik Euskal Herrian, baita Euskal Herri-kanpo be.

Ostean, Altxa Porru erromeria taldea egongo da, jentea jantzan ipini eta jai giroa berandura arte luzatuko dau.

#### Raimundo el Canastero zapa-tuan eta Gauargi domekan

Jaietako bigarren zapatu gaua, Raimundo el Canastero Lizarrako (Nafarroa) rumba fusino taldeak animauko dau. Kuadrilla handi batek, 18 lagunetik gora, osotuten dau taldea, baina partaideak aldatu egiten dira emonaldietan, talde "aldagarria" da-ta. Bere lehenengo diskoan, N.T.E.R. (No Todo Es Rumba) soinu flamenkoak, autotune eta rap-agaz nahastuten ditu. Diskoa 2023an kaleratu zan eta sorpresa handia izan zan fusino hau Euskal Herriko musikan.

Erromeria bategaz amaituko dira Igorreko jaiak Kultur Etxeko plazan, Gauargi erromeriagaz. 2012an sortu zan Gauargi taldea, jentea kantuan eta jantzan ipinteko asmoagaz.

## Juantxu Urkiaga: "Igorreko jaietako giroa oso sanoa da"

Igorreko jaietako hasikerako txupina Juantxu Urkiagak botako dau aurten. Galdakaon bizi dan igorreztar hau urte askoan egon da Igorreko jaietan jentea jantzan ipinten Jokaldi taldeagaz.

### Erredakzioa

#### Sano aproposa zeuk botatea txupina, ezta? Ze ezin doguz imajinau jai batzuk berbena barik!

Bai, baina esan eustenean neuk botako nebala txupina, hasikeran pentsau neban brometan zala. Hara! zeure bihotzean daukazun heritik deitzea... Igorreko jaiak bereziak dira! Eta esatea, "zeuk emongo deutsezu hasikerea jaietara...". Guztiz harrিতa geratu nintzan eta gero sentimentu nahasketak bat etorri zan: poza, harridura, erantzukizuna be bai... Baina pozik, pozik, sano pozik nago.

#### Zer dira zuretzat jaiak?

Jaiak gauza pilo bat dira. Pensearen sentimentuak azaltzeko momentua, personaren harremanak garatzeko, lan kontuak eta egunerokotasuna apur bat baztertzeko... Gauza desbardin bat da, eta batez be, herrian besteak batera ospatzen egotea.

#### Eta Igorreko jaiak, zer dira zuretzat?

Igorreko jaiak niretzat bereziak dira, ze igorretarrak sano bereziak dira. Ni egon naz Igorreko jaietan musika jotzen pilo bat urte eta Igorrek beti euki dauz izugarriko detaileak nigaz eta ni egon nazan taldeakaz. Eta itxi geuntsanean berbenak egiteari, hementxe bertan, Lasarten, despedida bat egin euskuen. Ez neban espero holango despedidarik.

Igorreko jaien inguruan, ni ez naz bape be objektiboa; bertokoa naz eta beste era batera ikusten dodaz Igorreko jaiak.

#### Eta aurtengo Igorreko jaiak, oindino bereziagoak, ezta?

Bai, aurtengoak gehiago. Neuk emoten deutset hasikerea eta! Ondo! Ondo! Oso inportanteak!

#### Urte luzeetan Jokaldin jo ostean, oin Ut da zure taldea.

Jokaldin, plazetan jotzen, ia berrogei urte egin dodaz. Pandemian be, ikusi zan Igorre ze berezia dan jaietarako. Gu auzorik auzo joan ginan kamioneta baten jotzen grupo elektrogeno bategaz. San Juanen, esaterako, jotzen genduzan lau edo bost kantu eta gero beste auzo batera. Holan ibili ginan. Gogoan daukat esan eustenean hori egiteko pentsau nebala: "zelango marroia"; baina gero ikusita jentea balkoietan txaloka, disfrutetan... Horrek emon eustan poza eta joan nintzan etxera oso-oso gus-

tura. Garben, Gezalan eta plazan be ibili ginan.

Jokaldigaz ia 40 urte egin ostean, talde bat egin genduan 1970 eta 1980 hamarkadetako kantak kantetako zuzenean. Hau da, Hertzainak, Delirium Tremens, Benito Lertxundi, Mikel Laboa, Txomin Artola, Itoiz, Errobi... horreen kanten bersinoak egiteko. Ut taldea da hori. Eta momentu honetan horregaz gabiz.

Oin dala urte asko, internetik be ez egoan orduan, gogoratzen naz, joan ginala Igorreko bat eta ni Basaurira abesten eta han egon zan Errobi jotzen. Guk ez genkian ezta nortzuk ziran be. Hasi ziran jotzen, tipo bi gitarra bigaz... Eta nik, neure buruari: ze onak diran tipo honeek! Eta pentsau neban ha-reen tributoa egin behar nebala. Beti euki dot hori buruan, Errobiri tributo taldea. Eta hortik sortu zan Ut. Gero beste talde batzuen kantuak be sartu genduzan; Hertzainak taldearenak eta abar.

#### Zelan aldatu dira jaiak, jaietan jotzen hasi zinanetik, hau da, lau hamarkada honeetan?

Ez daukie zerikusirik. Ni oin gitxi joaten naz berbenetara, baina guztiz aldatu dira. Nire ustez, lehen jantza gehiago egiten zan. Atzen urteotan... Bueno, Igorre horretarako be berezia da; Igorren asko egiten da jantzan, baina beste herrietan ez.

Berbenetako musika mota be guztiz aldatu da. Lehen berbena baten jotzen ziran jantzan egiteko piezak. Oin jentea, berbenara joaten da musikea dagoalako, en-

tzuten, bere tragoagaz... Beste era batera, beste gauza bat da. Gaur egun 50-60 urte daukiezanak bar-ritz, jantzan egitera joaten ziran: jota bat edo... Hori aldatu egin da.

#### Zer esango zeuskio Igorreko jaietara datorren jenteari?

Igorre dala munduko zentroa. Etorteko, hemen giro oso ona egongo dala: atsegina... Oso giro sanoa dala eta etorteko. Gu oin arte egon gara jotzen hemen jaietako azkenengo egunean eta oso sanoa da jentea.

Eta esango neuskie, batez be gazteei, euskeraz egiteko. Ze azkenengo datuak irakurri dodazanak, euskerearen erabilera hemen Arratian asko jatsi dala erakusten dabe. Ez dakit konziente garan zelango balioa daukan euskeraz egiteak. Ezin dogu euskerea galdu. Eta ez da galtzean erabilten bada.

Euskal musika gehiago konsumiduteko be esango neuskie. Gauza oso-oso onak egiten dira. Gaur egunean oso musikari onak dagoz Euskal Herrian. Beti egon dira, baina gaur egun eskolak, tailerrak eta abar dagoz. Herri guztietan dago zeozar ikasteko. Lehen ez. Eta azkenengo datuen arabera, lautik batek bakarrik konsumiduten dau euskal musikea. Bizkaia mailan lautik bat eskas da datua, eta Euskal Herria mailan lautik bat. Hori oso pobrea da.

Nik ulertzen dot badagozala beste eritmo batzuk oso erakar-garriak: latino eta holan. Horren kontra ez dago zertan egon, baina guk geurea ez badogu zaintzen, akabo!





# Igorreko Udalak jai zorientsuak opa deutsuez!!

begitu

**BAIETZ 30 LAGUN  
BARRI EGIN!**

**2024AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!**

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2024an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkartek, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Ondino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

**Zertu Kultur Elkartea Herriko plaza 24. 48142 Artea.**

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_ Helbide elektronikoa: \_\_\_\_\_

Kontu korrontearen zenbakia: ES \_\_\_\_\_

Aukeratu urteko kuotea:  40€  60€  80€



\*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.



**IPINI  
ZURE  
IRAGARKIA  
BEGITUN!**

Informazioa: **649 979 115**  
eta [inigoirua@begitu.eus](mailto:inigoirua@begitu.eus)

The advertisement features a young child wearing a grey flat cap and a white shirt with a grey vest, holding a black megaphone. The child is also holding a copy of the 'begitu' magazine, which has a '20' anniversary logo. The magazine cover includes headlines such as 'Mendebaldeko gaitzak dokumentala', 'Dozenaka jardura Gabonetako programetan', '28ko-Arta askegiara igueren', and 'Amela Aldai Emakume Master Cup-eko txapelden lau eta Gero Txapelketan'. The background is a vibrant pink with white arrows pointing towards the text.



**ETXEBIZITZAK  
SALGAI**

**GOIKOKALEA 14-16, 1D ETA 2H**

**OINARRIAK**

Info+: Areatzako udaletxea, webgunea eta iragarki taula

Areatza 1338

The advertisement shows a photograph of a multi-story building with balconies. A location pin icon is placed over the address 'GOIKOKALEA 14-16, 1D ETA 2H'. The text 'OINARRIAK' is written in a green box at the bottom left, and 'Info+: Areatzako udaletxea, webgunea eta iragarki taula' is in a green box at the bottom right. The 'Areatza 1338' logo is in the top right corner.



**begitu**  
**.eus**

The advertisement displays the 'begitu.eus' logo in white on a solid pink background. The logo consists of the word 'begitu' in a bold, sans-serif font, with a white arrow pointing to the right, and '.eus' in a smaller font below it.

**ASESORIA**  
**Gorbeialde**  
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza  
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza  
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82  
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

**HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA**

*Beluzia dago jabetza*  
-Salmentan zein aldatuan  
Lurrak (bakiteko, landak, basoak...)  
Etebizitza (pinak, baserak, etxak...)  
Garajeak  
Lokal komertzialak  
Pabiloiak...  
-Balonziak

*Beluzia dago proiektu*  
-Irakur berriak erakitzeko  
-Etebizitza  
-Aktibitate-proiektuak  
-Barru diseinua  
-CEE eta ITE-ak  
-Hirigintza aholkularitza  
-Negozioak irekitzeko kudeaketa

**arratia**  
IMMOBILIARIA

Lehendakari Agirre 25, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Agirre 14, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
94 657 70 03 - 94 657 70 04  
arratia@gorbeialde.com

**GORBEIALDE**  
LANDA GARAPENA  
ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIKO  
GARAPENEAN LAGUNTZEN

**Kili~Kili**  
Anpas eta Puntaketa  
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)  
Tel: 94 673 43 81

**Olaxte**  
Graduazinoak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gibatua  
Begiko tentsinoa  
Lentillen adaptazioa  
Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
94 657 70 03 - olaxteoptika@hotmail.es

**belagorri**

mediku naturalista  
argaltzeko terapia  
kosmetika naturala  
elikagai biologikoak  
zelakoentzai elikagaiak  
estetziaria

Zamakoia, 9 - 48960 Galdakao  
94 600 21 12 - 94 600 87 56  
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre  
94 631 14 39



**ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA**

# Errefusa Arratian

**%75** ▶ **EDUKIONTZI GRISEAN HONDAKINEN %75 GAIZKI UTZITA DAUDE**

**Errefusaren edukiontzian botatzen duguna**



- %39** Organikoa
- %17** Ontzi arinak
- %8** Papera/kartoia
- %6** Arropa
- %4** Beira
- %1** RAEeak eta bateriak
- %5** Ontziratu gabeko materialak
- %8** Osasun-ehunak
- %12** Beste batzuk

**%40**  
%40 organikoa da eta edukiontzi marroiera botata birziklatu daiteke

**BIRZIKLATU DAITEZKEEN HONDAKIN UGARI ERRAUSTEGIAN BUKATZEN DUTE, KONTAMINAZIOA AREAGOTUZ. ZURE ESKU DAGO HAU ALDATZEA!!!**

**TRATAMENDU KOSTEAK**

**73,4€/tn**  
Organikoa Konpostegin tratatzea

**131,55€/tn**  
Errefusa erraustegian tratatzea

**Organikoa ondo bereiztuz gero, gure poltsikoan nabarituko dugu**

Lan hau egitea gustatuko litzaizuke?  
Etxean bereiztea errazago da





## Gutun hau zuretzat da... **Eskerrik asko zuri eta zure azalari** **20 urte honeekaitik!**

**Zure konfiantzeari esker, gure ibilbidea zoragarria izan da. Alkarregaz aldaketak egin doguz azaletan, momentu ahaztu ezinak sortuz.**

Hogei urte honeetan, ohore bat izan da zugaz batera haztea. Zu barik, hau ezinezkoa litzateke. 26 urteaz hasi nintzan **Haize Natura** zentro gazte batez; orduan, zentro estetiko jeneralistea zan. Gaur egun, prestakuntza, esperientzia eta barrikuntza handiak izan ostean, **Haize Natura, zentro jeneralistea baino, azala zaintzeko zentro heldua da**, eta Arratiako zein Arratiatik kanpoko jentearengaino heltzean da.

Bitartean, **nire ibilbideak inspirazioa emon deutse nire sektoreko beste profesional batzuei eta arpegian espezializatu gura izan dabe euren lana**. Horregaitik, gaur egun, formakuntza emoten deutset profesional horreei. Zuokaz konpartidu barik neukan talentu ezkutua!

**Horregaitik zugaz ospatu gura dot gure 20. urteurrena, bagilaren 3tik 12ra**. Arimadun esperientzia bereziak prestatu doguz zuretzat, zeuri esker bizi izan doguz 20 urte zoragarri honeek eta.

Azkenik, **gogora arazo gura deusut zein garrantzitsua dan komertzio txikerrari babesa emotea**; izan be, komertzio txikerrek kaleak argiztatu eta bizitzaz beteten ditue.

*Eskerrik asko, bihotz-bihotzez.* 



### Azalaren diagnostikoa dermoanalizatzaileguz

Gure mikrokamara teknologiari esker, zure azala irakurri, ebaluatu eta ulertzen dogu. Zure nezeserra ordenatu be egiten dogu, zure eguneroko skincare errutinaren akatsak topauz; gura dozun azala eukitea ixten ez deusuen akats horreek, hain zuzen be. Zure azala eta zu ez zarie barriro inoz bakarrik egongo!

### Arpegiko tratametuak

Azalean eragin handia daukien tratametuak. Haize Naturan, metodologia desbardinakaz egiten dogu behar, zure beharrianak eta edadea kontuan izanda. Gure tratametuak autore-tratametuak dira, eta neurria egindako jantzia eskaintzen deusie zeure azalari. Lortu merezidu dozun azala!

#### Kosmetika errutinak

Minimalistak eta personalizatuak. Lehenengo minututik inbersino segurua!

#### Laser depilazioa

Gure SHR teknologiari esker behin-betikoa eta min bakoa.

#### Gorputzaren gantz-drainatzea

Zure itxurearen birmoldatzea, benetako osasuna emonez organismo osoari.

**haize natura**  
MARÍA GALVÁN ARPEGIAN ADITUA

📞 Informazioa 94 631 91 20 | ☎️ 635 70 47 39

Sabino Arana, 22, behea | 48140 Igorre | [www.haizenatura.com](http://www.haizenatura.com) | [@mariagalvanfacialista](https://www.instagram.com/mariagalvanfacialista)

Arabiako Herri Herrietako  
**Gure**  
ikastetxeak  
Euskalduna  
kalidazkoa  
herrikoa

**JB Eguzkiza Meabe HI**  
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

**Ugarana HI**  
Tel.: 94 631 55 32 Dima

**Zubialde HI**  
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

**Zeanuri HI**  
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

**Ikastola Arratia HI**  
Tel.: 94 428 78 15 Artea

**Arratia BHI**  
Tel.: 94 428 79 34 Igorre

**Areatzako Herri Eskola**  
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

**I. Zubizarreta HLHI**  
Tel.: 94 673 60 22 Igorre



## LASTO BOTATZE

### Tubi, Bizkaiko Lasto Botatze txapeldun

**Erredakzioa**

Maiatzaren 18an jokatu zan Arratzun Bizkaiko Lasto Botatze Txapelketea eta Jose Martin Bustinza "Tubi" dimoztarrak lortu eban txapela igazko marka bardinagaz, sei metro eta hamar zentimetro, bigarrenari 80 cm-ko aldea aterata. Jon Loiola dimoztarrak be hartu eban parte proban eta laugarren egin eban, 4 metro eta 60 zentimetrotara egoan langoa pasauta. Tubi eta Loiola Dimako Txabila Kirol Klubeko taldeko sortzaile eta partaide dira.

Bigarrena Beñat Obieta arrazuarra izan zan 5 metro eta 30 zentimetrotako markeagaz eta hirugarren, Mikel Agirre ondarroaztarra 4 metro eta 80 zentimetrotako langoa gaindituta.

Tubik 6 metro eta 40 zentimetrotan dauka Euskal Herriko lasto botatze markea, 2009an eskuratutakoa.

Irabazteko aukerak eukazala baekien Tubik. "Banenian nondik ibiliko nintzan; besteak zelan ibiliko ziran ez ordea. Obietak normalean txapelketan egin eban baino marka hobek egiten

ditu" azaldu deutso BEGITURI.

Bagilean Euskal Herriko Lasto Botatze Txapelketea izango da eta Bizkaikoan lehiatu diranak izango dira han be.

**Txabila Kirol Kluba**

Txabila herri-kirol taldea Diman errotutako taldea da. Taldekoek, bertako eskolan herri-kiroletako hainbat arlo eta diziplina, landu eta jolasaren pedagogiatik ikasleei irakasten deutseez. "Gure helburu nagusia kirol honeek ezetu arazotea, maitatzea eta ingurune desbardineta zabaltzea da, hau da; baseriko beharrak ziran kiroleketa kirolari eta zale barriak hurreratzea" azaldu deutso BEGITURI Jon Loiola Txabilakoak.

Herri-kirol modalidadeen barruan, Iparraldeko jokoak lantzean eta irakasten dabez batez be: lasto altxatzea, lasto botatzea, ingudea, lokotx batzea, sokatirea, txinga eroatea, zaku lasterketea, trontzea eta baita orga jokoa be.

Entrenamendu egunak, astelehen eta eguaztenetan 18:00etan izaten dira eta 16 urtetik gorako gazteak entrenamenduetara batzera animau gura dabez Txabila taldekoek.



Jon Loiola eta Tubi.

## ZIKLO-KROSA

### Aurten, barriro be nazinoarteko lasterketea izango da Igorreko Ziklo-krosa

**Erredakzioa**

Txirrindularitzearen Nazioarteko Batasunak, UCIk (Union Cycliste Internationale) siglakaz ezagunagoak, 2024-2025 denporaldiko lehiaketen egutegia emon dau jakitera eta nazinoarteko lasterketen artean, Igorreko Ziklo-krosa dago. Holan, igazko tartearen ostean barriro be nazinoarteko ziklo-kros lasteretekeia jokatuko da Igorren, abenduaren 8an.

## SASKIBALOI

### Lemoatx Neskak saskibaloï taldea, Bizkaiko txapeldun izan da

**Erredakzioa**

Lemoako J.B. Eguzkitza Meabe eskolako jokalariek osotutako Lemoatx Neskak saskibaloï taldea, Bizkaiko txapelduna izan da 11-12 urtekoen kategorian. 111 taldek hartu dabe parte Eskola Kirolako txapelketa honetan.

Lemoatzarrek 22 partidutatik 21 irabazi dabez, "Arratian historia eginez" Naia Fernandez Lemoatx Neskak taldearen entrenatzailearen esanetan. "Taldek honek, esfortzua, konpromisoa eta lana erakutsi dau denporaldi osoan, eta horri esker dira txapeldunak. Gainera, taldeak 4 urteko inplikatuzino eta dibersinoagaz, ziklo be-

rezi bat zarratuko dau, eta Mini titulua gehituko deusie Premini titulua eta Baby Kopa eta Mini Kopa kategorietan, Easo Txapelketan bosgarren postu bi eukan pal-

maresari" azaldu deutso BEGITURI entrenatzaileak.

Saskibaloiko Mini kategorian, beste kirol batzuetako Alebin edo Kimu kategorien parekoa da.



# 2024ko JAIETATIK ETXERA BUELTATZEKO AUTOBUSA

Zerbitzu hau ARRATIako udaletako, AMOREBIETA-ETXANOKo eta GALDAKAOko gazteei zuzenduta dago.

<p><b>IGORREKO SAN ANTONIOAK</b></p> <p><b>NOIZ:</b> Ekainaren 8an (Larunbata) Ekainaren 15ean (Larunbata)</p> <p><b>ORDUTEGIE:</b> 2:30etan eta 5:00etan</p> <p><b>NON:</b> Autobusen paradan</p>	<p><b>BEDIAKO SAN JUANAK</b></p> <p><b>NOIZ:</b> Ekainaren 22an (Larunbata)</p> <p><b>ORDUTEGIE:</b> 2:30etan eta 5:00etan</p> <p><b>NON:</b> Autobusen paradan</p>	<p><b>ARANTZAZUKO SAN PEDROAK</b></p> <p><b>NOIZ:</b> Ekainaren 28an (Ostirala)</p> <p><b>ORDUTEGIE:</b> 3:30etan</p> <p><b>NON:</b> Autobusen paradan</p>	<p><b>DIMAKO SAN PEDROAK</b></p> <p><b>NOIZ:</b> Ekainaren 29an (Larunbata)</p> <p><b>ORDUTEGIE:</b> 2:30etan eta 5:00etan</p> <p><b>NON:</b> Autobusen paradan</p>
<p><b>AMOREBIETA-ETXANOKO KARMENAK</b></p> <p><b>NOIZ:</b> Uztailaren 15ean (Astelehena) Uztailaren 20an (Larunbata) Uztailaren 24an (Asteazkena) Uztailaren 27an (Larunbata)</p> <p><b>ORDUTEGIE:</b> 2:30etan eta 5:00etan</p> <p><b>NON:</b> Anbulatorioko paradan</p>	<p><b>LEMOAKO SAN INAZIOAK</b></p> <p><b>NOIZ:</b> Uztailaren 27an (Larunbata)</p> <p><b>ORDUTEGIE:</b> 2:30etan eta 5:00etan</p> <p><b>NON:</b> Korreosen ondoan</p>	<p><b>ZEANURIKO ANDRA MARIAK</b></p> <p><b>NOIZ:</b> Abuztuaren 10ean (Larunbata)</p> <p><b>ORDUTEGIE:</b> 2:30etan eta 5:00etan</p> <p><b>NON:</b> Autobusen paradan</p>	<p><b>AREATZAKO SAN BARTOLOMEAK</b></p> <p><b>NOIZ:</b> Abuztuaren 30ean (Ostirala)</p> <p><b>ORDUTEGIE:</b> 2:30etan eta 5:00etan</p> <p><b>NON:</b> Autobusen paradan</p>
<p><b>ARTEAKO ANDRA MARIAK</b></p> <p><b>NOIZ:</b> Irailaren 8an (Ostirala)</p> <p><b>ORDUTEGIE:</b> 2:30etan eta 5:00etan</p> <p><b>NON:</b> Autobusen paradan</p>	<p><b>GALDAKAOKO SANTAKURTZAK</b></p> <p><b>NOIZ:</b> Irailaren 14an (Larunbata) Irailaren 21ean (Larunbata)</p> <p><b>ORDUTEGIE:</b> 2:30etan eta 5:00etan</p> <p><b>NON:</b> Galdakaon Plazakoeban</p>		

## PELOTEA

# Amaia Aldai ez da heldu Nafarroako Foru Komunitatea Txapelketako finalera

### Erredakzioa

Madalen Etxegaraigaz batera jokatuko finalurrekoan 13-22 galdu eban dimoztarrak maiatzaren 25ean Altsasun jokatutako partidua, Arraiza eta Gaminderen aurka.

Emakume Master Cup zirkuituko Nafarroako Foru Komunitatea Txapelketako finalurreko jardunaldian Amaia Aldai eta Madalen Etxegarai, Arraiza eta Gaminderen kontra lehiatu ziran eta 13-22 irabazi eban atzen honeek. Burlatan barriz, Zabaleta-Galeano eta Garai-Erasun bikoteen artekoa jokatuz eban egun berean, atzen honeek 22-18 urten ziran garaile.

Holan, ebatzita geratu da bagilaren 9an, Iruñeako Bonbonean jokatuko dan finala. Goizez,

11:30ean hasiko dira Promesa mailako finalak eta gero jokatuko da Elite mailako final handia.

Bertan, Garai-Erasun eta Arraiza-Gaminde bikoteak egongo dira aurrez aurre.



Amaia Aldai eta Madalen Etxegarai.

## TXIRRINDULARITZEA

# Oskar Garrok eskura dauka Kopa Paralinpikoko lehen postua

Oskar Garro txirrindulari igorretarrak, Espainiako Errepideko Kopa Paralinpikoa eskuratzeko aukerak ditu aurtengoan be.



Oskar Garro berdez jantzita.

### Erredakzioa

2023ko Kopea berak irabazi eban, MC2 kategorian, eta aurtengo txapelketan bigarren doa sailkapen orokorrean, Paulino Fernandez

atzetik. Atzen lasterketa biak bagilaren 8an eta 9an jokatuko ditu A Larachan (Galizia).

Maiatza amaieran Murtziako lasterketan, "espero baino txarrrago" ibili ostean, Garrok "gor-

putzari buelta emon eta irabazteko ahalegina" egingo daua azaldu dau BEGITU egindako adierazpenetan. A Larachan jokatuko dan Vilañoko Sari Nagusia ezaguna da igorretarrantzat, pasau dan urtean bertan lortu ebalako Espainiako Kopea, atzen lasterketan bigarrena izan bazan be. Aurten, estuagoa izango da lehen postuagaitiko lehia.

### Murtzian Euskadiko Selektzioagaz

Maiatzaren 25 eta 26an, Caravaca de Cruz-en (Murtzia) jokatuko dan Espainiako Errepide Txapelketa Paralinpikoa. Zapatuan 20 kilometroko erlojupekoan eta domekan 36 kilometroko lasterketan, bietan izan zan laugarren Igorrekoa, berroagaz sufridu ostean: "Kilo-kolo, ondo joan nintzan eta aurrerago egoteko esperantzea neban, baina holangoa da kirola".

## FUTBOLA

# Gizonezkoen Arratia Ak mailari eutsiko deutsan jakin barik amaitu dau ligea

### Erredakzioa

Ligea amaitu dan arren gizonezkoen Arratia A taldeak ez daki oindino mailari eutsi ahal izango deutsan. Ligea jatsiera postuetatik kanpo amaitu dauan arren, Ondarroako Aurrera taldea Hirugarren Mailatik Ohorezko Mailara jatsi danez, eragina dauka horrek eta bigarren postuan amaitu dauan Bermeo taldeak, igoera play-off-etan igotea lortu behar dau Arratia Ak Ohorezko Mailan segidu ahal izateko.

Gizonezkoen Arratia A taldeak maiatzaren 25ean jokatuz eban Uritarra A taldearen kontra etxetik kanpo eta 0-1 irabazi eban partidua. Bere esku eukan denporaldia jatsiera postuetan ez amaitutea eta partidua irabazita lortu eban. 34 partiduz jokatuz ostan

hamaseigarren postuan amaitu dau 38 puntu lortuta. Halanda be oin Bermeo taldeak mailaz igon behar dau Arratiak datorren denporaldian maila berean segidu ahal izateko.

Gizonezkoen Arratia B taldeak maiatzaren 25ean jokatuz eban ligako atzen partidua etxean Montefuerte A taldearen kontra eta 1-2 galdu eban. Arratia Bk hamaikagarren postuan amaitu dau ligea 37 puntuz 34 partiduz jokatuz ostan.

### Lemoako Harrobi

Lemoako Harrobik maiatzaren 25ean jokatuz eban etxetik kanpo La Merced A taldearen kontra eta bina bardindu eban. 34 partiduren ostean zazpigarren postuan amaitu dau Lemoako taldeak 52 puntuz.

### Zuzendaritza Batzordea aldaturiko dau Lemoako Harrobik

Zuzendaritza Batzordeak 4 urte beteten ditu aurten eta taldeko estatutuek dinoenez zuzendaritza barria osatu behar da, honetarako bagilaren 14ra arte hautagaitzak aurkezteko epea zabalik dago. Interesa daukienez [lemoakoharrobitaldea@gmail.com](mailto:lemoakoharrobitaldea@gmail.com) helbidera idatzi behar dabe.



## MENDIA

# Aner Zuluaga eta Markel Irigorri igorretarrak Zegama Aizkorri Kilometro Bertikaleko podiumean

### Erredakzioa

Zegama Aizkorri Kilometro Bertikalean, Euskadiko Kilometro Bertikal Txapelketa be jokatuz eban eta Junior kategorian, igorretar bik egin eban podiuma: Aner Zuluagak bigarren eginda eta Markel Irigorri hiruugarren, hain zuzen be. Azpeitiako Ibai Angulo izan zan txapeliduna. Probeak, 4,6 kilometroko ibilbidea eta 800 metroko desnibela izan eban.



Aner Zuluaga ezkerrean eta Markel Irigorri eskoian podiumean.

## LIBURUA

**Mendia ardatz daukien 20 kontakizunez osotutako *Izarrak eta haitzak* liburua kaleratu dau Karlos Aretxabaletak**

**Edurne Pasaban, Juanjo San Sebastian, Pou anaiak, Alex Txikon, Oihana Azkorbebeitia, Mikel Zabalza, Alberto Iñurrategi, Ekaitz Maiz, Imanol Amundarain, Irati Anda, Iker Arroitauregi eta Iñigo Basterragaz** besteak beste, egin eban berba Karlos Aretxabaletak liburua idazteko.

## Erredakzioa

**Mendizale eta eskalatzailen ezagunenak agertzen dira *Izarrak eta haitzak* narrazino liburuan.**

Bai, liburua osotuten dabezan 20 kontakizunek mendia daukie oinarri edo ardatz. Bertan agertzen diran pertsonaiak, esanguratsuak dira. Batzuk ezagunak dira beste batzuk ez hainbeste... Eskalatzailen artean, esate baterako, eskaladako modalidade eta diziplina desbardinatukoak dagoz: batzuek blokean edo boulderrean egiten dabe batez be eskaladea, adibidez Euskal Herrian, Espainian eta munduan ezaguna dan Itziar Zabalak. Alpinistak edo himalaiastak be



badagoz liburuan. Eta mendi korrikalariak, horreen artean aitatuako neukez Zigor Iturrieta eta Oihana Azkorbebeitia.

**Euskeraz eta gaztelaniaz kaleratu da.**

Bai. Jatorrizkoa euskeraz idatzita dago, baina badagoz 3 edo 4 kontakizun neuk itzuli nebazanak eta argitaletxera bialdu nebazanak. Hasikeratik Suakoek esan eusten eurek ikusten ebela aukerea, euskeraz eta gaztelaniaz publiketako. Nik itzuli nebazan lau bat kontakizun, momentuan holan behar izan nebalako alkarriketatuei heldu arazoteko. Gai nontzekoak, argitaletxeko Garbiñe Areitio editoreak itzuli dauz.

**Luze jo dau idazketa prozesuak?**

Oingo udan izango dira urte bi liburu honegaz hasi nintzanetik. Asko disfrutau dot idazketa prozesuagaz. Behin idazten amaituta, papelean ikusi arte, egiten da luzeen. Opari bat izan da mendizale honek guztiak egon ahal izatea.

**Aurkezpen ofiziala Bilbon izan zan apirilaren 27an eta hurrezkeron hainbat lekutan aur-****keztu dozu liburua. Arratian aurkezpenik egiteko asmorik?**

Bai. Arratia nire bigarren etxea da. Azkenean han daukagu base-ria eta astero egoten gara Kola-zinon. Gurako neuke, bai.

Nik publiko desbardinak ikusten dodaz, publiko desbardin-enei zuzenduta idatzi nebalako. Irakaslea nazanez, gaztekan pentsautu idatzi neban liburua eta gurako neuke institutueta, leiduteko aukerea izatea, pentsetan dot liburu honetan agertzen diran pertsonaiak oso esanguratsuak dirala, ez bakarrik euren lorpenakaitik, baita euren pentsakereagaitik be. Eta gaur egungo 17 urteko batek ez dau jakiten nor dan Alberto Iñurrategi edo Edurne Pasaban. Gaztekan orainaldian eta geroaldian bizi dira eta nik gurako neuke institutueta berbalditxoak emon. Pentsetan dot hori oso aberasgarria dala alpinista edo kirolari horreen balioak be ahalko neukezalako mahai gainean ipini. Oihana Azkorbebeitia edo Edurne Pasabanen edo beste hainbaten atzetik dagozan intrahistoriak zozagarriak dira-ta.

Eta beste publikoa izango litzateke, esate baterako, mendi taldeak. Pentsetan dot mendi taldeek holango literatura gogo onez hartuko dabela. Eta plaza ona izan ahal dala. Baita kultur etxeak be. Nik horreek daukadaz buruan.

## URRUZUNO

**Enara Gallastegik, Andere Bouzak eta June Etxezarragak sariak irabazi dabez Urruzunon bigarren bez**

**Hirurak dira Arratia Institutuko ikasleak eta Institutua bera be saritua izan da.**

## Erredakzioa

Enara Gallastegi Barrenetxeak, 2006-2007 jaiotakoan kategoriari bigarren saria irabazi dau poesian *Igande urdin bateko gogoetak* lanagaitik; Andere Bouza Bengoetxeak eta June Etxezarraga Yurrebasok, biek 2008-2009 jaiotakoan kategorian poesia lanakaitik jaso dabez sariak. Bouzak lehenengo saria irabazi dau *Hamaika burutapen* poesia lanagaitik eta Etxezarragaren lan bi saritu ditue, *Oroitzapenezko hari bat* eta *The Kuku Revisited*. Igaz be Enara Gallastegik, Andere Bouzak eta June Etxezarragak sariak jaso ebezan, eta asko dira Arratia Institutuak, bere historian zehar, jaso dituan sariak.

Urruzuno Literatur Lehiaketean

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak antolatuten dau literatur sorkuntzea bultzatzeko Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean. Aurtengo edizunoko epaimahaia, Mikel Ayllon, Itxaro Borda, Miren Gorrotxategi, Iratxe Retolaza eta Patxi Zubizarreta idazleek osotu dabe.



## ANTZERKIA

**Arratiako VII. Haur Antzerki Topaketak izango dira Igorreko Kultur Etxean**

## Erredakzioa

Kurkuluxetan Elkarteak antolatuta, bagilaren 5, 6, 10 eta 11n izango da antzerki topaketea Igorreko Kultur Etxean. Bertan, Areatza, Artea, Igorre eta Le-

moako eskolek hartuko dabe parte eta 8 lan taularatuko ditue.

Areatzako eskolako ikasleek *Bremengo musikariak* lana antzetzuko dabe; Artekoek, *Nork esan du beldurra?* eta *Gaiztoa izan nahi ez zuen otsoa*; Igorreko

eskolakoek *Vanhelssing familieren etxea* eta *Hotel beldurgarria* eta Lemoako eskolakoek *Iragarkiak* eta *Sare sozialak* izenekoak. Lemoa-Kurkuluxetan taldeak barriz, *Dantzariak* eta *futbolariak* taularatuko dau.

Topaketa honeen helburuak, umeak euskal giro jator baten murgiltzea, haurrentzako topagune erreferentzial bat bilakatzeta eta jarduera honen bidez euskeraz bizitea dira. Gainera, "alkar ezagutza, alkarregazko atxikimendua eta lagunak egiteko leku eta giro egoki bat" eskaintzen deusez topaketok umei.

**Kurkuluxetan**

Kurkuluxetan alkartekoek, ikasturtean zehar dramatizazio klaseak emoten ditue ikastetxeetan, eta eskola horreekaz, baliabideak emon gura deusez umei, publiko aurrean berba egiteko, lotsea kentzeako, norberaren gorputza ezetuteko eta alkartasuna eta laguntasuna bultzatzeko, alkartekoen arabera.

## KONTZERTUA

### Lemoan egongo da Korrontzi bere 20 urteko biran

Korrontzi folk taldeak bere 20. urteurrena ospatutako 20 izeneko lana kaleratu eta nazinoarteko bira bat egiten dabil.

#### Erredakzioa

20 diskoa nazinoarte mailako 10 disko onenen apirleko zerrendan sartu eban World Music Charts Europe-k. Urteurren birari jagokonean, bagilaren 7an, 20:00etan, Lemoako Kotxepin Kultur Etxean izango da folk taldea, Euskal Herriko hainbat lekutatik, Madril, Bartzelona, Belgika eta Portugaletik pasau ostean. Ostean eta abendura arte, jarraituko dabe birea mundu zabaletik.

Korrontziren 20 diskoa eta liburuak taldearen hamabigarr

ren diskoa da. Kantu barriak eta zaharrak biltzean ditu eta musikari ezagunen kolaborazioak daukaz: tartean, Phil Cunningham (Eskozia), Michael McGoldrick (EB), Luar Na Lubre (Galizia), Iñigo Etxe ETS, Mikel Urdangarin eta Gozategiren kolaborazioak. Liburuak taldearen ibilbide oparoa kontetan dau.

Igazko abenduan hasita, Lemoakoa, birako 24. kontzertua izango da, Arratian egingo dauan bakarra eta ostean, beste 31 kontzertu daukiez programauta urtea amaitu arte.

## IPUINA

### Ameli eta Xirrikituak jostunek ipuin kontalariek umeentzako kontaketea egingo dabe Lemoan



#### Erredakzioa

Bagilaren 12an, 18:00etan, Lemoako Kotxepin Kultur Etxean da hitzordua. Ameli eta Xirrikituak jostunek bikoteak ipuin kontaketea musikatuak egiten ditu. Amaia Elizagoien da ipuin kontalaria eta Irtati Celestino, musikaria.

Udabarriaren bueltako ipuinak izango dira. "Gure arbasoen ohi-tura da inauterien ospakizuna. Negua agurtzeko garaia, udabariaren usaina hartzekoa. Baina gu bere istorioetan murgilduko gara, gure ipuinetatik bidaiatuko dogu eta bidea abentura bat izango da. Gugaz etorteko prest?" dinoen sinopsian.

## PINTURA LEHIAKETEAK

### Iker Mugarrak irabazi eban Zeanuriko pintura lehiaketea



#### Erredakzioa

Zeanuriko Aire Zabaleko VI. Margolan Lehiaketea izan zan bagilaren 2an, herriko pintura taldeak antolatuta Udalaren laguntzeagaz. Partaideek, goiza izan eben Zeanuri edota bere inguruaren gaineko koadro bat pintetako. Izan be, 09:00etatik 09:30era zigitatu eta arrastiko 14:00etatik 14:30era arte aurkeztu behar izan ebezan lanak sinatu barik Kultur Etxean.

Margolanen nahitaezko gaia

Zeanuri eta bere ingurua izan zan. Euskarria laua eta zuria edo kolore bakarrekoa izan behar zan (mihisea, ohola...). Gehienez 100 x 100 zentimetrokoa.

Iker Mugarrak irabazi eban Zeanuriko Aire Zabaleko Margolan Lehiaketearen VI. edizinoko lehenengo saria, 800 euro; bigarrena 500 eurokoa Leticia Gasparrek eroan eban, eta Carlos Lang-ek eroan eban publikoaren saria, 300 euro. 15 artistek hartu eben parte eta pozik agertu ziran antolatzaileak datu horregaz.

## DUNBA

### Migrazinoen gaineko pastorala

#### Igorreko eskolako 5. mailako ikasleak

Igorreko eskolako 54 ikasle, 5. mailakoak ibili dira aurtengo Loraldia Eskolak proiektuaren barruan pastorala egiten. Gaia: migrazinoa.

Eguenero ordubeteko saioa euki dabe Erika Urangaz eta bertan, alkarlanean, dana antolatu, ebatzi eta aurrera eroan dabe. Pastoralaren gidoia Maddi Zaballok idatzi eban eta, emonaldiaren egunean, bera be hurreratu zan maiatzaren 24an Igorreko Lasarte Aretora ikusten. Emonaldi bi egin ziran, goizean eskolako umeentzat eta arrastian gurasoentzat.

Ikasturtean zeharreko presentaketan, holango ekitaldi batek daukazan zeregin guztiak ikasi dabez ikasleek: antzezle lanak, gidoilariarenak, jantzari, atrezzo, "txibato"... Eta danetan, hamaika



urteko eskolako umeak izan ziran protagonista.

#### Pastorala

Hiru ataletan banandu eben pas-

toral, eta atal baktaxa talde bakte antzestu eban.

Lehenengoa, 1937an gertatutakoa da, Gerra Zibilean, Igorren. Bigarrena be Euskal Herrian ger-

tatukoa, 2024an. Hirugarrena etorkizuneko pasarte bat da: Euskal Herrian 2124an. Talde baktaxak migratzeko errazoi batzuk erakusten ditu.

Lehenengo taldearen errazoiak gerrea eta egoera politikoa dira. Aprilaren 6an hasten da kontakizuna, Igorreko bonbardaketako lehen egunean.

Bigarren taldearena gaur egun Euskal Herrira datozen migranteren gainekoa da. Arratiara heldu diran hiru migranteren istorioak azalduten ditu.

Hirugarren taldeak 2124 urtea irudikatu eban: alde batetik, klima aldaketeak Euskal Herriko lurra eta paisaia hondatu ditu, Europako herrialde gehienetako ekonomiak gainbeheran dagoz, eguneroko gauzen prezioak herritar gehienek ezin dabez ordaindu. Hori dala-ta, euskaldun batzuek ebatziko dabe Europako

iparraldera alde egitea eta Finlandia joango dira teletransportazio bidez, baina hara heldutakoan konturatuko dira ez dirala ondo etorriak, bertakoek mehatxutzat hartzean ditue eta.



## AGENDEA

**BAGILAK 3  
ARANTZAZU**

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

**AREATZA**

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00retatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

**ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO**

Arratia futbol taldeak 2024-2025 denporaldirako izen-emote epea zabalik bagilaren 3ra arte. Informazio gehiago 688 777 117 eta 94 631 57 04 telefonoetan edo [cdarratia@cdarratia.com](mailto:cdarratia@cdarratia.com) helbide elektronikora idatzita.

Abuztuaren 31ra arte, Gorbeia Nire txoko kuttuna Argazki Lehiaketea. Argazkiak Instagramera igon #MiRinconFavorito, #GorbeiaEuskadi eta #CorazonVerdeDeEuskadi hastag-akaz.

**BEDIA**

Ikasgelaren zerbitzua Bete-beteka ikasgelan. Astelehenetik barikura 09:00etatik 16:00etara eta 19:30etik 21:30era; zapatu eta domeketan, 09:00etatik 21:00etara. Izena emoteke eta erreserba egiteko 16:30etik 19:30era liburutegian. Txartela personalizaua da eta liburutegian jaso behar da.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

18:00etan, Begoña Madariaga eta Garazi Hernandezen berbaldia *Sareko segurtasunari buruzko jarraibideak* liburutegian.

16:30etik 19:30era, hilaren 14ra arte, sanjuanetan parte hartzeako eta txosnan lagunduteko izen-emotea liburutegian.

**DIMA**

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera liburutegia zabalik.

Hilaren 9 eta 23an izango dan Sorgintxoak Eskolako tailerrerako izen-emotea [tallersorgintxoak@gmail.com](mailto:tallersorgintxoak@gmail.com) edo 635 139 863 telefonoan.

Hilaren 11ra arte, Garbigune mobikorra Iturrigorri kalean. Onartutako hondakinak: etxekotresna txikiak, sukaldeko tresnak, etxeko orioa (ontzi txikietan), sakeleko telefonoak, kableak, aerosolak, kutsatutako xurgatzaileak, tonerrak, metalezko edo plastikozko kapsulak, pilak, CDak, DVDak eta kaseteak eta erradiografiak.

**IGORRE**

09:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 20:45era, *Hipocentros: sismos plasticos* erakusketea Kultur Etxeko Erakusketa Gelan. Hilaren 17ra arte.

Bagilaren 14ra arte, izen-emotea bagilaren 24tik 28ra Urbieta zelaian egingo dan Arratia taldearen Futbol Kanpuserako. 2012 eta 2019 urteen artean jaiotako neska-mutilentzat. Udalekuko ordutegia 09:30etik 14:00etara izango da. 100 euro (eguneko armozua eta kamiseta bat barne). Izena emoteke 688 777 117 edo 94 631 57 04 telefonora deitu edo [cdarratia@cdarratia.com](mailto:cdarratia@cdarratia.com) helbide elektronikora idatzi.

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik 09:30etik 13:30era eta 16:00etatik 20:30era.

08:00retatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

**LEMOA**

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik Kultur Etxean.

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

Hilaren 3ra arte, aurkeztu daitezke jaietako Kartel Lehiaketerako lanak udaletxean.

Hilaren 6ra arte, udal ugerlekuetako taberna-kafetegia ustiatzeko proposamenak aurkezteko epea udaletxean.

Hilaren 9ra arte, 2024-2025 ikasturterako Oinezbusa zerbitzurako izen-emotea [www.lemoa.net](http://www.lemoa.net) webgunean.

Lemoako Harrobi futbol taldeak Zuzendaritza Batzorde barria osotu behar dau, bagilaren 14ra arte hautagaitzak aurkezteko epea zabalik. Interesdunek [lemoakoharrobitaldea@gmail.com](mailto:lemoakoharrobitaldea@gmail.com) helbidera idatzi.

Bagilaren 9ra arte Lemoan eskatu euskeraz eta saria irabazi kanpainera herriko komertzioetan.

2024-2025 denporaldirako 2019an eta aurretik jaiotakoentzat Lemoako Esku Pilota Taldean izena emoteke epea zabalik. Informazioa 689 933 775 eta 647 154 156 telefonoetan.

**ZEANURI**

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

**ZEBERIO**

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik

barikura liburutegia zabalik.

Bagilaren 3ra arte, udalekuetarako izen-emotea udaletxean. Txandak bagilaren 24tik garagarriaren 12ra arte, 2018tik 2021era eta 2013tik 2017ra jaiotakoak; bagilaren 24tik 28ra, 2008tik 2012ra jaiotakoak.

Hilaren 13ra arte, astelehenetik barikura 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara eta zapatueketa 10:00etatik 13:00etara, Zeberioko eraikin desbardinaren maketa erakusketea udaletxeko 2. solairuan. Maketa egileak: Txomin Bustinza Ibarrondo, Jose Maria Ruiz del Rio eta Alfonso Ruiz del Rio.

**BAGILAK 5  
ARTEA**

19:00etan, udalekuen gaineko batzarra Kultur Etxean.

**IGORRE**

17:30ean, Arratiako VII. Haur Antzerki Topaketak. Arteako eskoleak *Nork esan du beldurra*; Lemoako eskoleak *Iragarkiak*. Kultur Etxean.

**BAGILAK 6  
AREATZA**

16:00etatik 20:00etara, ugerlekuko karnetak egin daitezke ugerlekuan.

**ARTEA**

18:30ean, *Osakidetza hilzoriar* mahai-ingurua. Hizlariak: Ahoztar Zelaia eta ikerketa kazetaria, Markel Brouard familia medikua, Txutxin Oñate LABeko arduraduna eta Ihintza Angoitia mediku psikiatra. Moderatzailea: Itsaso Bengoetxea. Kultur Etxean.

**Oroitzapenen gaineko hausnarketea dakar Olaiaren lorategia antzezlanak**

Bagilaren 15ean, 18:30ean egongo da ikusgai Pajaros pintados konpainiaren *Olaiaren lorategia* publiko guztientzako antzezlan Lemoako Kotxepin Kultur Etxean.

Non geratzen da bizi izan doguna? Non geratzen dira gure oroitzenak? Nora doaz gure lagun maiteak hiltzen diranean? Zelan bizi doguz galera honek? Itaun horreetatik abiatuta sortzean da *Olaiaren lorategia* proiektua.

Antzezlanak, modu poetikoan, ausentzien gainean egiten dau berba. Olaiaren oroitzenak lorategian dagoz landatuta: kotoi landarearen bidez, maskotearen oroitzena itzuli da; geranioa, amona bihurtu da eta mahats-parra gurasoak. "Proiektu honek gozotasunez eta naturaltasunez berba egiten dau galeraz, eta emoziorako alkar-gune bat sortzean dogu, gure egunerokotasunean aintzat hartzean ez doguzan gai horreen gainean hausnartzeko" dinoe Pajaros pintados konpainiakoek webgunean.

**BEDIA**

18:00etan, Leire Tamara Ordorikaren berbaldia BetiOn telelaguntzearen gainean liburutegian.

**IGORRE**

17:30ean, Arratiako VII. Haur Antzerki Topaketak. Arteako eskoleak *Gaiztoa izan nahi ez zuen otsoa*; Lemoako eskoleak *Sare sozialak*. Kultur Etxean.

Eingo eskolako ikasturte amaierako jaiak. 12:00etan, ikasle helduakaz kalejire; 14:30ean, bazkaria Txaparro jateketa (20 euro); 18:30ean, ume gazte eta helduak Kantan ta Dantzari; 20:00etan, familia argazkia eta kopaua bakotzak eroandakoagaz Beheko Plazan.

**ZEANURI**

18:00etan, Mazala andra taldeak antolatuta, *Sexu aniztasuna hirietatik* antzerki bertaldira Hiruki Larrosako Garazi Beramendi Alvaradoren eskutik Kultur Etxean.

**BAGILAK 7  
AREATZA**

16:00etatik 20:00etara, ugerlekuko karnetak egin daitezke ugerlekuan.

**IGORRE**

Igorreko jaiak. Ikusi egitaraua erdiko orrialdeetan.

**LEMOA**

20:00etan, Korrontziren kontzertua Kotxepin Kultur Etxean. 20 lanaren aurkezpena.

**BAGILAK 8  
AREATZA**

20:30ean, Mario Malatesttaren kontzertua The Quiet Corner tabernan.

**IGORRE**

Igorreko jaiak. Ikusi egitaraua erdiko orrialdeetan.

**BAGILAK 9  
DIMA**

10:00etatik 14:00etara, Indusi inguruko sasoiko sendabedarrak antzemateko eta botikina prestatzeko tailerra Sorgintxoak Eskolako Mari Feli Prietoren eskutik Indusin.

**IGORRE**

Igorreko jaiak. Ikusi egitaraua erdiko orrialdeetan.

**BAGILAK 10  
IGORRE**

Igorreko jaiak. Ikusi egitaraua erdiko orrialdeetan.

17:30ean, Arratiako VII. Haur Antzerki Topaketak. Igorreko eskoleak *Vanhelssing familiaren etxea*; Lemoa-Kurkulluxetaneak *Dantzariak eta futbolariak*. Kultur Etxean.

**BAGILAK 11  
IGORRE**

Igorreko jaiak. Ikusi egitaraua erdiko orrialdeetan.

17:30ean, Arratiako VII. Haur Antzerki Topaketak. Igorreko eskoleak *Hotel beldurgarria*; Areatzako eskoleak *Bremengo musikariak*. Kultur Etxean.

**BAGILAK 12  
IGORRE**

Igorreko jaiak. Ikusi egitaraua erdiko orrialdeetan.

**LEMOA**

18:00etan, Ameli eta Xirrikietuen

jostunek-en *Ez esan inori* ipuin kontaketea Kotxepin Kultur Etxean.

**BAGILAK 13  
IGORRE**

Igorreko jaiak. Ikusi egitaraua erdiko orrialdeetan.

**LEMOA**

09:00etan, Lemoatx Jubilatuta eta Pentsiodunen Elkarrekin antolatuta, Santo Domingo de la Calzada eta Ezkaraira txangoa tailerretatik.

**ZEBERIO**

Ermitabarriko jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdeetan.

**BAGILAK 14  
IGORRE**

Igorreko jaiak. Ikusi egitaraua erdiko orrialdeetan.

**ZEBERIO**

Ermitabarriko jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdeetan.

**BAGILAK 15  
DIMA**

07:00etan, Arratiako eleizeak antolatuta, Urkiolara oinez joateko batu.

11:00etatik 14:00etara, Ilgoran Arratiako Andren Jabekuntza Eskolako ikasturte amaierako saioa; 14:00etan bazkaria bakotzak eroandakoagaz frontoi txikian.

**IGORRE**

07:00etan, Arratiako eleizeak antolatuta, Urkiolara oinez joateko batu.

Igorreko jaiak. Ikusi egitaraua erdiko orrialdeetan.

**LEMOA**

18:30ean, Pajaros pintados konpainiaren *Olaiaren lorategia* umeentzako objektu antzerkia Kotxepin Kultur Etxean.

**ZEANURI**

07:30ean, Arratiako eleizeak antolatuta, Urkiolara oinez joateko batu.

**ZEBERIO**

Ermitabarriko jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdeetan.

**BAGILAK 16  
AREATZA**

Auzolana Gorbeia Parke Naturaleko mantenimenturako. Izena [gorbeia.park.naturala@bizkaia.eus](mailto:gorbeia.park.naturala@bizkaia.eus) helbidean edo 94 673 92 79 telefonoan emon. Parketxeak antolatuta.

09:00etan, eleiza portikuan autobusa. Lamino Kirol Klubak eta familia alkarteak antolatuta, urtekerea Sopuertara. Goizean tirolina; 14:00etan, bertan bazkaldu; arrastian Muskizeko La Arena hondartzara.

**ARTEA**

09:30ean, Jubilatu eta pensionisten alkarteak antolatuta, Artea-Zeanuri-Artea ibilaldia plazatik urtenda. Amaieran, mokautxo bat egongo da jubiladuenean.

**BEDIA**

11:00etatik 14:00etara, Merkataritza, Artisanatza eta Elikadura Azokea plazan.

**IGORRE**

Igorreko jaiak. Ikusi egitaraua erdiko orrialdeetan.

**ZEBERIO**

Ermitabarriko jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdeetan.

# KOMIKIA

Kailo Ren



## IRAGARKI LABURRAK

### DANERIK

#### LONJEA ALOKATZEN DOT

Igorreko Olabari auzoan dagoan lonja bat alokatzen dot kontratupean. Informazioa, 647 239 449 telefonon.

#### GARAJEA ALOKATZEN DOT

Alkarren ondoan dagoan garaje bi alokatzen dira Igorreko Elexalde kaleko 47 zenbakian, On Egin-en ondoan. Biak batera ala banaka alokatu daitezke. Batera egin ezkeru prezioa egingo da. Interesdunek deitu 615 723 646 telefonora.

#### GARAJE PARTZELEA ALOKAIRUAN

Garaje partzela bat alokatzen da Igorren, anbulategi atzeko parkean. Interesatuak 629 307 400 telefonora deitu.

#### GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

#### ELONDO EGURRA SALGAI

Elondo egurra saltzean da. 40 metro karratu. Neurriak: 1,50 metro luzeera, 7 cm zabalera eta 1,07 cm lodiera. Prezioa: 20 euro metro karratua. Interesdunek 630 363 971 telefonora deitu.

#### YOGA ETA COACHING

Gorputza indartu eta flexibilizatu, zure

amesetako etorkizuna sortu, zure barne bakea topatu eta bizitza orekatu. Online klaseak. Kontakua: 672 873 452 (Nerea).

### LANA

#### FRANTSESEKO KLASEAK ONLINE

Adin eta maila guztiak. Bakarka zein taldeka. Frantses filologian graduatua. Interesdunek deitu: 610 374 854 (Nerea).

#### KLASE PARTIKULARRAK EMON ETA UMEAK ZAINTZEAN DODAZ

Lehen Hezkuntzako ingeles eta beste ikasgaietako eskola partikularrak emoten deusedaz, martitzen, eguen edo bariku arrastietan. Umeak jagoteko be prest nago egun horreetan. Interesdunek deitu: 650 842 292.

#### ALEMAN ESKOLAK EMOTEN DIRA

Esperientzia luzeko alemaniarak adin eta maila guztietako aleman eskolak emoten ditu, online eta aurrez aurre. Interesdunek deitu 610 863 369 telefonora.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

**1** Lemoako Kultur Etxeak emondako bina sarrera Korrontzi taldearen kontzerturako

Eduardo Ugarte (Ubide)  
Gonzalo Urigoitia (Plentzia)



**2** Lemoako Kultur Etxeak emondako bina sarrera Pajaros pintados konpainiaren Olaiaren lorategia antzezlanerako.

Joseba Larrakoetxea (Zeanuri)  
Marian Garai (Lemoa)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 22 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | [www.begitu.eus](http://www.begitu.eus) | [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus)

**Dia %**  
**PEDRO**  
**AUTOZERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROSER  
-  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
-  
Tlf. 94 631 92 00

ASEGURUAK: **ZUZENBIDE**  
AUTOAK ETXEBIZITZAK  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAZ KONTABILITATEA  
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER**  
**TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
94-673-70-87  
609-79-40-54

**begitu**  
**eus**



- **LAN PUBLIKOAK**
- **UR ETA SANEAMENTU SAREAK**
- **BASERRI ETA BASOKO BIDEAK**
- **PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK**



**94 631 72 57**      **Igorre (Bizkaia)**



**eraiketak@construccionesekin.com**